

Negelak, mugitzen dena ikusten du bakarrik. Hau da, geldirik bazaude, dena beltz ikusten du, eta mugitzen zarelarik, orduan bai, orduan ikusten zaitu. Politikoez bezala, ez da hala? Politikoez ere mugitzen zarelarik bakarrik ikusten zaituzte.

Bizi garen -urruneko, hurbileko eta barneko- munduei buruzko gogoeta bereziak eskaini izan ditu Elurrek, Xorroxin irratiko Di-da tartean. Gogoeta hauek irratitik errateko eginak ziren, laburrean. Ulertzeko aisa dira eta gaien trataera zuzena dute. Horrek guztiak, irakurterraza eta iradokitzailea den testu multzoa osatu du, papererat ekarrita pilula ernaraztaile sorta.

KIRIKA FM · Elurre Iriarte Bañez

Elurre
Iriarte Bañez

kirika FM

Bizi garen

MUNDUEI

Begira

METAZIRI

METAZIRI

ELURRE IRIARTE BAÑEZ

KIRIKA FM

bizi garen munduei begira

Egilea: Elurre Iriarte Bañez

Liburuaren azala: Helena Xurio Arburua

Barneko irudiak: Amaia Zinkunegi Larrañaga

Diseinatzailea: Izaskun Gutiérrez Arruabarrena

metaziri ekoizpenak

<http://metaziriekoiizpenak.blogspot.com.es>


metaziriekoiizpenak@gmail.com

ISBN: 978-84-617-2433-8

LG NA 1773-2014

KIRIKA FM

bizi garen munduei begira



Zure bizitzako
egun goibeletan
ez etsi,
zeren eta noizbait
zeru beltzok ere,
jainko baten soingaineko
zarpaila bezala,
urratuko baitira
azkenean,
eta supituki
agerian utziko
haren biluztasun
distiranta.

LUIGI ANSELMI

AITZIN SOLASA

Orain lau urte-edo, Elurreri Xorroxin irratiko Di-da tartean parte hartzeko proposamena egin genion eta, orduz geroztik, denbora honetan guztian, hamabortzetik behin bizi garen -urruneko, hurbileko eta barneko- munduei buruzko gogoeta bereziak eskaini dizkigu.

Bereziak diot, bai; saiotik saiora bere gogoe-
tek nortasun berezia zutela iruditu baitzitzaidan,
ahots propioa. Bereziak gaiak fokatzeko moduan;
gai horiek –jendeak urrunetik ikusi nahiago ditu-
enak- hurbileko egiteko ahalmenarengatik: bizi-
pen pertsonalarekin harremanduz, anekdotaren
bat amu gisa erabiliz, bitxikeria historikoren bat
baliatuz... eta beti, makurrenean ere, baikortasun
samur eta erroko batekin kontatuz. Hala, Elurre-
ren gogoetetan, bizi ditugun menderaketa egoe-
ren eta harremanen azterketa ez da etsipenerako
aitzakia, apatiarako egonarria, edo hain modan
dagoen eszeptizismotik egindako kritika. Hone-
takoan bizitzeko modu konszienteago baterako
bidea da, bizimodu libreago baterako eztenkada.

Baina Elurreren gogoetetan gure izate finituaren ezinegon esistentzialek, giza kondizioari loturiko kezka oinarrizkoenek ere -bizitzaren zentzua, heriotza, maitasuna...- tokia hartzen dute. Dramarik gabe, bizitzaren parte gisa, egunerokoaren hauspo. Maiz atzentzen badugu ere, pertsonak hauskorrak baikara.

Bistan da. Hasmentan erran dugu. Gogoeta hauek irratitik errateko eginak ziren, laburrean, bi minutuz gehienez. Baldintza horiek testu jakin bat ekarri dute. Idazketa molde bat, irratitik erraterakoan ulertzeko aisa direnak eta, horregatik, gaien trataera zuzena dutenak. Horrek guztiak, irakurterraza den testu multzoa osatu du, papere-rat ekarrita pilula ernaraztaile sorta. Betiere, kontuan hartu idatziak 2010 eta 2014 artean eginak direla. Hala, batzuetan gogoetarako bidea eman zuen aitzakia denboraren lainoan lausotu izana posible da, baina ez kezkatu, sakoneko gogoetaren balioak irauten baitu.

Akitzeko, testuetako batean Elurrek bere bu-ruaz mintzo, aipatzen du "...eta kontent itzuli nin-tzen, ama izatera, militante izatera, maitale izatera, langile izatera, eskualduna, emakumea, atea... Per-sona izatera" . Joritasun horretatik, hain zuzen, eginak daude gogoetak, norberaren izate anizkoi-tzetik. Eduardo Galeanok izaera anizkoitza gure

inguruarekin osatzen du, pertsona aunitzez eginak gaudela erranez. Izate anizkoitz konprometitu eta emankortasun sozial hori testu hauen funtsa direla erraterat ausartuko nintzateke.

Orain bai, akitzeko, Elurreri eskertu liburuxka hau egiteko Metazirikook egindako gonbidapena onartu izana eta iragankorrek beharko luketen gogoetak paperean finkatzeko ausardia eduki izana.

Irakurketarekin goza dezazuela.

Joseba Otondo Bikondoa

DENBORA GALTZEA

Ikusi dut azken hontan modan direla denbora antolatzen ikasteko ikastaroak. Harritu nau pixka bat. Hortarako ikastaroak behar ote ditugu? Egin nahi ditugun gauza guziak nola antolatu jakiteko ikastaroak? Ez ote da hobe gauza guttiago egiten ikastea? Nahikeria gutixeago izatea? Bizimodua aldatzeko ikastaroak proposatuko nituzke nik.

Egia da, ez dut nahi dudan guzia egiteko astirik izaten: kirola egin, mendian ibili, frantsesa ikasi, ingelesa beharbada, bidaiatu, leitu, semearekin jostetan aritu, idatzi, eskulanak egin, lagunak bisitatu, bilkura hortarat joan, bertze batzar hontan parte hartu, honekin bazkaldu, bertze harekin eztabaidatu.... Uf!! Ezin!!! Denbora antolatu beharra dut!!

Beharbada ikasi behar duguna ez da denbora antolatzen, denbora galtzen baizik. Denbora hor da eta pasatzen da, modu batez edo bertzez erabiliz. Pasatzen da, baina beti hor da: ordu bat pasatzen zaigu, baina hortxe dugu ondokoa! Hiltzen

garelarik akitzen zaigu soilik... eta orduan zertako beharko dugu pilates? Denbora eskas izaten dugu, baina ez ote da sobera gauza egin nahi ditugula?

Periodikoan agertu zen ikastaro horien berri, eta hola hasten zen artikulua: bizitza denbora da; haurra sortzen denetik, denbora galtzen ari da. Ikaragarria!! Sortu berria denbora galtzen ari dela? Uf!! Hortik atera kontuak. Leitzen segitzeko gogoak kendu zidan. Zer izanen da hauendako herriko ostatuan edo plazan arratsalde pasan egoatea? Sakrilegioa!!

Ez dut uste egonean denbora galtzen denik. Nola zen bertze bizimodu hura? Egun guzia lanean batetik bertzerat. Ez zuten, ez, pilates egiten, ez hizkuntzarik ikasten, ezta bidaiatzen ere, baina batetik bertzerat joatean beti zuten gurtzatzen zutenarekin solasteko astia. Eta luze, ez bi solas orain bezala, aroa eta ondoak aipatu eta aire!! Bakoitza berera!! Segi produzitzerat, denbora galdu gabe!!

Ez dut bizimodu hura nahiago dudarik erranen, baina bai alderdi hori. Hizkuntzarik ez zuten ikasiko, bidaiatu ere ez, baina ez zuten denbora galtzen bizitza beteko zien bertze zerbaiten bila.

Eta trankil, aise trankilago bizi ziren. Ez ote dugu hola bizitzeko ikastarorik beharko?

Beharrik mantso bizitzeko bertze mugimendu hori dugun, slow bizimodua, mantso bizitzeko filosofia. Nik ikastaro hortan emanen dut izena... astirik baldin badut.

BIDAIA

Maiz memoria txarra dugula, memoria galtzen ari garela eta holako gauzak aditzen eta erraten ditugu. Bai, beharbada hala da, baina egia da gogoko gauzak, interesatzen zaizkigunak, errazago gogoratzen ditugula eta gustukoak ez ditugunak berriz, atzendu. Zergatik? Gauza estimatuetan arreta errazago paratzen dugulako segur aski.

Edozein gauza egiten dugularik, gustukoa ez bada ere, edo esfortzu bereziren bat eskatzen badu ere, alderdi baikorrean, gogokoan, paratzen badugu arreta, aise plazer handiagoz egingen dugu, gehiago gozatuko dugu, seguru.

Imajina ezazue bidaia luze bat, zazpi bat ordukoa konparazione, egun bakarrean egin beharra. Zazpi ordu joan eta bertze hainbertze itzuli. Egund berean. Galizia, adibidez.

Imajinatu zazpi orduko bidaia hori lagun bat ikusteko egin behar duzula. Laguna 40 minutuz bakarrik ikusi, eta itzuli behar duzula. Ez du zen-

tzurik, ez da hala? Baina bada, badira holakoak, aste hondarrero presoak bisitatzera joaki direnak, adibidez.

Ba imajinatu bidaia hori, eta ohartuko zarete arreta non paratzen duzun, bidaia desberdin eginen duzula. Arreta paratzeko bi aukera daude: bidaia pisua, luzea, nekagarria, arriskutsua dela ikusita, hortan ohartu eta horri begira bidaia egin. Edo konpainia onean eginen duzula, paisaia zoragarria dela eta gainera, egunero ikusteko aukerarik ez duzun laguna ikusiko duzula.

Imajina ezazu bisita. Hor egonen dira funtzionarioak, zure lagun hori barnean kontzen dutenak eta segur aski sobera ongi tratatzen ez dutenak. Ba hemen ere bi aukera: haserre eta agurtu gabe nortasun-agiria eman eta bisitarat tentsio horrekin sartu, edo egun on arrunt batekin agurtu eta trankil sartu, bisitaz gozatzerat.

Bisitan bi aukera: kartzelako miseriaz solastatu, injustiziaz, errepresioaz, egoera zailaz, edo, lagunez, familiaz, literaturaz solastatu, irri pixka bat egin. Kartzela batetik bertzerat ibili den lagun horrek Santioko bidea egiten ari dela erraten dizula adibidez.

Imajinatu gero ateratzean duzun tristura horrekin itzultzen zarela etxerat, 7 orduko bidaiia triste eta luzea, laguna hor gelditu delakoz, paretan, alanbre ziztakaria eta polizien artean. Bakarrik. Gogorra da, egia erran. Baina baduzu aukera bisitan gozatu duzunaz gogoratzen pasatzeko, lehendabiziko ordu erdian guttienez.

Imajinatu bueltan, nekatua bazaude ere, konpainia onean segitzen duzula eta jokoren bat asmatzen duzula bidaiarako, eta azkenean berandu, destenoretan, etxerat ailegatzen zarela, leher egina, baina gorputza trankil eta bihotza kontent, lagun horrekin egon zarelakoz, bisitaz gozatu duzulakoz eta lagundu zaituenarekin ere ederki pasatu duzulakoz.

Imajinatzea da. Hala ere, argi da hau mekanismo bat dela, bisita hauek ahal bezain lasai egingiteko. Bai baitakigu zergatik egiten ditugun bisita hauek, zergatik adierazi nahi diegun ez daudela bakarrik, eta bat egiten dugula defendatzen dituzten idealekin. Badakigu gure herriaren aldeko gerlaren ordaina dela eta sufrimendua dela.

Esfortzu handia eskatzen du bidaiaz gozatzek, eta beti ez da posible. Imajinatzen duzu astebururo holako esfortzurik egiten? Izanen da beharbada norbait, baina ez da harritzekoa neke

horrekin umorea galtzea. Mila estutasun agertuko zaizkigu tartean beti kontent egoten utziko ez gaituztenak: trasladoak, miaketak, bisitarik gabe gelditzea, laguna triste ikustea... Kartzelatako egoera hau ez baita batere zuzena. Baina saiatzea merezi du, dudarik gabe.

Hala ere, badut gure etxeko balkoiko ikurra kentzeko gogoa eta kontent ibiltzeko esfortzu hau egin behar ez izatea. Bandera kendu, baina ez bakarrik presoak kanporat atera direlako, baizik eta beraiek amesten duten herria lortu dugulako. Librea. Bi aldiz libre izatea merezi dutelako, dudarik gabe.

OLENTZERO

Sasoia ailegatzen delarik buruan bueltaka izaten dut Olentzerorena. Zer ote da Olentzero? Nor da? Nondik heldu da ohitura hori? Paganoa da? Kristaua? Nor da ikazkin hori? Galderak, galderak eta galderak.

Teoria bat baino gehiago aditu dut, eta horregatik nire galderak. Batetik, izen desberdinak dituela, bertzetik ohitura desberdinak daudela... Azken finean, ohitura zaharrak mantentzearen aldekoa naiz, baina gaur egungo zentzua bilatuz; eta hor dut hutsunea edo betebeharra.

Orentzaroarena gustatu zait, Leitzakoa. Adituko zenuten noizbait beharbada: enbor puska bati deitzen diote Orentzaro. Honi sua eman eta gero familia partaide bakoitzeko ezpal bat sutarat bota, desio bat eskatzeko. Arras sinbolikoa eta sinbolismo ederra gainera. Hori gustatu zait.

Bertze teoria Oles-aroarena dugu. Hau da, eskean ibiltzearen aroa, kantuz eskean ibiltzearen aroa. Aro hau hala dugu: Gabon gaua, Urte berri,

Santa Ageda, Gizakunde, Orakunde, Inauteriak... denetan kantuz eta eskean ibiltzen gara. Hau ere gustukoa dut.

Nahiz eta jakin bertze teoria batzuk badirela, nik gaur egungo praktikari ez diot zentzurik ikusten. Nire kezka ez da teoria sinesgarriena bi-latzea, baizik eta garai honetako praktikari zentzua ematea. Orentzaroari desio bat eskatzen zaio, eta Oles-aroan eskean ibiltzen gara. Kontua da gaur egun desioak eta beharrak ez ditugulaguk eskatzen. Ditugun beharrak eta desioak kanpotik etortzen zaizkigu pentsatuak. Kontsumotik bideratuak daude, dudarik gabe. Eguberrietan ditugun desio guziak materialak dira eta Olentzeroren lana desio horiek betetzea izaten da.

Aditu duzue banaz bertze zenbat sos xahutzen den egun hauetan? Ikaragarria! 600 euro pertsonako. Denak Olentzero edo papanoel edo hiru erregeen lanak betetzeko. Horrekin ez aski eta sos publikoarekin argiteria pagatzen dugu. Hilabete batez ikaragarrizko energia eta sos pila apaingarrietan.

Ba ez, ez diot zentzurik ikusten gaurko Olentzerori. Azken aldian gainera, dilindan ikusten dut balkoietan, tzipatua, makur eta norabidea zein den ongi jakin gabe: etxean sartzean ari da?

Edo eskapo, pelikuletako presoak kartzeletatik bezala? Bertzetik, kontent naiz, erreketako kangrejoarekin ez bezala, papanoel inbasoreari nagusitzen ari zaiolako.

MANIPULAZIOA

Urteak hasi eta urteak akitu, aitzinekoaren segidakoak izaten dira denak. Urte aldaketarekin egoera aldaketa gutti izaten dira. Hor dugu krisia, ia etxekoa egin duguna; hor dugu langabezia, grebak...

Hauek guziak eta gehiago inportanteak dira gure eguneroko funtzionamendurako, ez da hala? Gure elkarbizitzarako. Ba... erne ibili! Komunikabideek badituztelako 10 lege edo estrategia gu nahasteko. Kasu!! Guk gauza inportanteetan denborarik ez emateko, ez kezkatzeko eta interesik ez izateko. Bakarren bat kontatuko dizuet, bu-ruan ideia-aren bat izateko.

Lehendabizikoa Distrakzioaren estrategia da. Hau da, jendearen arreta zerbaitekin desbideratu, bertze gauza inportanteez ez ohartzeko eta ez kezkatzeko. Adibiderik garbiena periodikoetan: berriak leitzen ditugu, edo interpretazio interesatuak? Edo politikarien iritzia, bertzerik gabe?

Bertze estrategia bat arazoak sortzea eta konpontzea da. Horra tabakoaren legearekin gertatu zena. Ez zen bertze solasik! Arazoa gobernuak berak sortu du, tabako enpresei tabako pozoindua saltzeko baimena emanaz eta orain gobernuak berak konpondu nahi ditu minbiziak eta holakoak erretzea debekatuz. Ez ote zen egokiago tabako fabrikak erregulatzea?

Bertze estrategia jendea zozokeriekin entretenitzea da. Ignorantzian mantendu, ez dezatela aldatzen lagunduko duten artikuluak leitzen denborarik galdu. Hortxe duzue jendea telebistako programa zozoekin denbora galtzen, egunero, orduro, tarte hori zenbait gauzari aitzin nola egin pentsatzeari eskaini beharrean. Denak telebistari begira futbol taldeak herriaren ohorea salbatuko duen edo ez.

Horiek dira komunikabideen estrategietako batzuk. Manipulatzeko estrategiak. Gehiago ere badira, baina Ti-ta batean egin behar izan dut eta hauek kontatzeko astia izan dut bakarrik. Gainerakoak hor barna daude. Ez dira nik asmatuak, Noam Chomsky pentsalari estatubatuarrak izendatu eta zenbatu zituen. Berari zor gaurko tarte hau.

ERRETRETA

Jubilazioa, erretreta, erretiroa. Horixe dugu azken hontan mintzagai. Hor ibilki dira jubilazioa gibelatu, beranduago jubilatatu, lanean beranduago artio aritu...

Erretreta gibelatzearen arrazoi bat bizi-itxaropena da, hau da, gero eta zaharrago hiltzen omen gara. Beraz, gero eta beranduago artio lanean aritu behar. Estatistikekin hala ere, ez naiz sekulan fio. Badakizue bizi-itxaropena nola kalkulatu den? Hiltzen diren guzien adinak batu eta banaz bertzekoa egin. Lehen haur ttiki gehiago hiltzen ziren orain baino, bizi iraupena 40-50 urteetan izaten zen. Gaur egun guttiago dira hiltzen diren haurrak, beraz, bizi-itxaropenak goiti egin du, ez da bertzerik.

Bertze arrazoi bat biztanleria zaharraren hazkundera da. Ondoko urteetan aunitz handituko omen da. Aritu batzuek diotenez, gezurra da. Biztanleria zaharraren hazkunderik altuena duela 50 urte eman omen zen eta ondoko urteetan ez omen da halako hazkunderik emanen. Hau da,

ondoko urteetan zaharren kopurua ez da duela 50 urte bezainbertze handituko.

Zein da egiazko arrazoia? Aberatsek aberasten segitu nahi dutela, bertzerik ez. Europako herrialdeak duela 30 urte baino aberatsago dira. Espainiar estatuan adibidez, per kapita errenta bikoiztu egin da. Orduan, zergatik ezin da lan nahiko egin duen jende horri eutsi? Sortzen den aberastasuna gaizki banatua delakoz, ez da bertzerik.

Ez dut uste jubilazioa gibelatzeak aunitzerako balio duenik. Hasteko, langabezia ere handituko litzateke. Gainera, 35-40 urte lanean aritu eta gero, ez ote dugu lanaren zama arintzea mezezi?

Egia da gaizki antolatua dela afera hau. Urteetan lan beretsua egitean, lanbide batzuetan bederen, azkenean eraginkortasuna galtzen da. Hau da, 35 urtez irakasle izan denak, azkeneko urteetan erakusteko gogo bera du? Edo 40 urtez hargingoan ibili denak ere, alimaleko desgastea izanen du osasun mailan. Beraz, lanaren arabera, jubilatzeke adina hautatzea izan zitekeen proposamen bat. Jubilatu guziei lan-sari bat eman, egokia, zentzuzkoa. Ez batzuek sos parrastak eta bertze batzuek sos papurrak. Pentsiodunetan er-

dia baino gehiago pobreziaren muga azpitik bizi da.

Jubilazio sariarekin batera eta ahal den neurrian, gizarterako baliagarri den zerbait egitea proposatzen dut. Burua piztua mantentzeko. Honetan ere bakoitzak bere hautua. Badira adibideak: arte irakasle batek museotan bisita gidatuak ematen zituen; hargin batek baratze ekologikoa nola egin erakusten zuen; irakasle batek eskola batean laguntzen zuen eskulanak antolatzen. Mila aukera daude jubilatutik burua okupatua izateko, neurriko ardurarekin. Eta gustukoa, doike.

Neurologo batek erraten zuen jubilazioak burmuinak desegiten dituela. Gorputza bai, baina burmuina ez dela zimurtzen eta hortarako neuronak estimulatu behar direla: ilusioak izan, funtzionarazi. Beraz, jubilatutik bai, baina burua piztua mantenduz.

Helburua gehiago bizitzea baino, bizi duguna hobe bizitzea da, ezta?

ESKUALDUN BURUGABE?

Berriki ETBn kanpaina bat egiten ari direla leitu nuen periodikoan. Eskualdunek ETBn eskuaraz egiteko kanpaina. Ez zaizue sekulan pasatu, poema bat leitu, edo esaldiren bat edo zerbait eta pentsatzea “to! hauxe zen nik erran nahi nuena”? Ba honekin holako zerbait. Ez da erran nahi nuena, aspaldi erraten ari nintzena baizik, baina etxean, lagun inguruan, eta beharbada eragin gutti duen tokietan.

Hala ere, nonbait bertze batzuek ere kezka bera ikusten zuten eta abiatu dute kanpaina hau. Hau da, eskualdunen bat elkarrizketatzean eskuaraz egitea eskatzen dute. Ez dut sekulan ulertu eskualdunei ETBn elkarrizketatzen zaielarik, zergatik eskatzen zaien erdaraz egitea, zergatik egin behar duten erdaraz. Nola da posible eskual komunikabide batek eskual hiztunak erdaraz egi-terat behartzea? Iparraldekoek libratzeko aukera dute, baina ikusi izan ditut espainolez solasean.

ETBk duen ohiturarekin, (kate batean berriak eskuaraz eman eta ondotik bertze katean

espainolez) pertsona bat elkarrizketatzen dutelarik, pertsona berak bi hizkuntzatan egiten du: ETB 1erako eskuaraz eta ondotik espainolez ETB2rako. Pertsona hau eskualduna izaki. Horrek sutzen nau. Sutzen nau eskualdun bati erdaraz egiterat behartzea, eta onartzeak aise gehiago. Nahikoa da eskualdunek behin solas egitearekin. Jakinen du norbaitek ETBn espainolez itzultzen doike!!

Katalanekin, ingelesekin, frantsesekin egiten duten gisan. Zertaz egiten dugu halakorik? Gainerakoei azpigituluak, bat-bateko itzulpenak paratzen dizkiete... Gu berriz, hola ibilki gara beti, bertzeen lanak egiten: gu itzultzen, gu espainolez egiten... holakoak egiten ikusi ditut: eskualdunak, eskualtzaleak, eskuararekin zerikusteko zuten gauzak aldarrikatzeko... espainolez mintzatzen kameraren aitzinean. Bertzenaz ez dute aterako. Horra!! Hainbertze gauza daude ateratzen ez dituztenak, eta hortaz ez diogu egiteari uzten, ez da hala? Ez dut zerrendarik eginen!!

Eskuara hutsean funtzionatuko bagenu, hortan sinetsiko bagenu, ez zen eskuara galtzeko arriskuan izanen. Hala baita. Desagertzeko bidean omen. Eskuara erabiltzen ez dugularik, ez da hizkuntza ez dugula erabiltzen, kultura bera da baztertzen duguna. Koldo Izagirrek liburu bat

atera zuen: Autopsiarako frogak. Artseniko aztarnak gure hizkuntzan. Hortan erakusten digu eskuara hiltzen den egunean autopsia bat egiten badiogu, argi ikusiko dugula ez dela heriotza naturala izan, pozoï arrastoak daudela.

Horietako bat horixe izaten ahal zen, eskual komunikabide batean eskualdunak erdaraz egite-rat behartzea. Eskuararen kalterako. Aztarna au-nitz ikusiko ditugu, eta orduan ohartuko gara zenbat hanka sartze, zenbat hutsegite egin ditu-gun. Ez da aski eskualduna izatea, ez da aski so-lastatzea, holako erasoei aitzin egitea ere inpor-tantea da, fite, hilko diren hizkuntzen zerrendan gurea ikusi nahi ez badugu bederen. Eta hizkun-tzarekin batean herria, dudarik gabe. Eskualdun eta Burujabe, eta ez burugabe.

ETXEEN IZENAK

Jende franko ikusten ari naiz gauza bat dela edo bertze bat dela, tarrapataka alde batetik bertzerat. Astirik gabe beti. Estresa erraten diote. Zuek ere hala ibilki bazarete, ariketa bat proposatuko dizuet arintzeko: zuen herrietako etxeen izenekin joku bat. Ohar zaitezte, bitxikeriaren bat ikusiko duzue, seguru. Nik nirean egin dut, eta horra emaitza.

Iriartean ez da Iriartetarrik bizi, Iriartetar batzuk Elixaldean bizi dira. Elixaldea berriz, ez da elizaren aldean, ez da ondoan, herriko bertze puntan baizik. Elizaren ondoan Elizaintzinea da, bai, baina izena aldatu zaio eta Panaderie deitzen dugu. Hala ere, Panaderien ez dute ogirik saltzen, ogia Uxoan egiten dute, baina Uxoan ere, aurten uso gutti jateko.

Harrigarria da ere Ttipittona dela etxe zaharren artean handienetako bat. Arotzengan ez da arotza bizi, ez, arotza Indartean bizi da.

Beñatenean ez da Beñat bizi. Estebanean bai, Esteban bizi zen, baina aspaldi Ameriketarat joan zela eta izenak galdu du izana. Zapatonean zapataria ez, kamioneroa bizi da eta Pierresenean Pierresen partez, Juana Mari.

Gontxea hor dugu, Goienetxea (goian dagoen etxea). Goitiago etxeak izan beharrean eliza da. Hala ere, beti imajinatu dut Gontxean guantxe bat biziko zela garai batean. Guantxeak, badakizue, Kanarietako biztanleak ziren, eta horra non, orain Gontxeakoa izan beharrean Posantzeneako semea Kanarietan bizi den, guantxe bat bihurtua.

Tristantenekoak kontent dira etxe hortarat bizitzerat joaki direlako. Plazaburua plazatik urrun da, dudarik gabe, eta Etxeberria urteak pasa ahala berritu behar izan dute. Arrosenean hortentsiak landatzen dituzte gehienbat, eta Dolatxean sagardo beharrean zerbeza edaten da ausarki.

Hala ere, bada izena eta biztanleen artean harremana berreskuratu duen etxerik. Zaharretako bat dugu Enekonea, eta hor Eneko izeneko haurra bizi da, urte aunitzen ondotik.

Niri bitxikeria hauek irriñoren bat pizten didate, lasaitu, kezkek baztertu eta eguna bertze umore batez hartzen laguntzen didate. Probatu nahi?

MARTXOAREN 8a

Gaur Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, aukera badut ere ez naiz salaketekin, zanpaketarekin, zanpatzaileekin, desberdintasunekin, berdintasunekin eta holakoekin hasiko.

Ez naiz egun hauen aldarrikapen zalea. Holako egunak aldarrikatzen badira seinale txarra: eskuararen eguna, langileen eguna, emakumeena, gazteena... Denek zanpaketa dute oinarri eta horregatik ez ditut maite. Aldarrikatu behar bada, zerbait gaizki den seinale. Gaurgero desagertuak beharko ziren. Uste dut.

Beraz, gaur asmakizun bat ekarri dizuet, alternatiba gisa, eta erne egon beharko duzue erra-ten dudanarekin. Datuekin erne, beraz.

Gizon bat bere alabarekin bidaiari da, Baigorritik Bilborat. Lesaka parean istripua izan dute eta neskatikoa arras gaizki da. Irungo ospitalerat eraman dute eta hango medikuek larria dela erra-ten diete. Zalantza aunitz dituzte, operatu edo ez.

Hil ala biziko operazioa izanen zen eta ez dira ziur beren buruarekin.

Baionako ospitalean den aditu bat deitzea deliberatu dute. Arras ona den mediku honekin solastatzen dira, laguntza eske, eta honen erantzuna hauxe da: Joanen naiz, bai, neskatiko hori operatzerat. Eginahalak eginen ditut salbatzeko, nire alaba baita. Nola da posible?

Pena zuen erantzunak ez ditudala aditzen ahal, asmatu duzuen edo ez jakiteko. Asmakizuna ezagutzen ez duen norbaitek asmatu ote du? Ezagutzen duzuenek, entzun zenuten lehendabiziko aldian asmatu ote zenuten?

Ez dugu sobera pentsatu beharrik. Pentsatu bakarrik. Aditua emakumea da, haurraren ama. Mediku on hori emaztekoa da, ez gizonezkoa, aunitzek pentsatu izanen duzuen bezala. Asmatu duzuenak, edo bazenekiten edo... biba zuek!! Asmatu ez duzuenek, baduzue gaur zer pentsatu.

Preziski aunitzek asmatu ez duzelako zuek beharko dugu emakumeen eguna aldarrikatzen, eskubideak gogoratzen, aunitzei ez baitzaie gogoratu ere egin izanen mediku on hori emakumezkoa izaten ahal zenik ere.

HISTORIA ISTORIOAK

Kultura zer den eta zer ez den eztabaidagai eta solas interesantea izaten ahal da. Argi da gure herriak badituela berezko ezaugarriak hizkuntza, kultura eta zenbait ohiturengatik. Baina argi da gero eta kutsatuagoak gabiltzala, eta gaurgero denek ez dugula gure ama erraten, nire ama baik, adibidez. Hortxe kutsaduraren arrasto ñi-miño bat. Erdaretako kutsadura, gure kasuan espainolatik edo frantsesatik, ez bertze euskalkietatik, zoritxarrez. Izaten ahal zen.

Zientoka pelikula ditugu aukeran ikusteko, zer erranik ez gaur egun, ordenagailua eta internetaren bidez dena mila aldiz biderkatzen baita (arriskuak barne). Aukera hori probestuz Moby Dick filma ikusi nuen berriki semearekin. Ez dakit oroituko ote zareten, bale zuri zigante baten bila joaten diren marinelen abenturak Ismaelek kontatuak. Klasikoa. Itsasoa, baleak... baditu erakargarriak diren elementuak.

Eta horra non halako batean Moby Dick ba-
learen bila abiatzen direlarik, semeak erraten di-

dan: “Horra! barko haundie utzi ta txalupak hartu dituzte!?” Harritua bera. Harrituago ni, bale arrantzari buruzko berririk ez zuela ikustean. Ez zirela txalupak, traineruak baizik erran behar izan nion. Ez zituen estropadak bale arrantzarekin lotzen. Badu bai, piraten berri haur aunitzen gisa, baina ingelesena. Erran behar izan nion urruneko itsasoetan, piraten artean bazirela ere pirata eta kortsario eskualdunak. Pellot kortsarioaren istorioa kontatu nion. Bazirela itsasoan ibiltzen ziren eskual marinel eta arrantzaleak, Ternuaraino ailegatu zirenak. Han eskual toponimia dugula: baya ederra, opor portu, Baye de Biscaye, Anton Portu.... Eta han ere izan zela hizkuntza berezi bat, pidgin, ingelesa eta eskuararen arteko nahasketak sortu zuena: for mi presenta, for ju sagardua eta burra esnia izaten ahal zen tratuetan ari zen marinel baten errana.

Baztan itsasotik urrun gelditzen dela pentsatuko duzue, bale arrantzaleak ez direla erreka honen kontuak baina ez omen da hala. Kontatu nion hemen egiten zen sagardo litro andana harat joaten omen zela sasoi batean, eta eskual marinel horri esker ez zutela eskorbuto eritasunik izaten.

Itsasoa lehorrean hasten da.

IRAUNGITZEA

Etxeko inpresora hautsi eta konpontzerat joan nintzelarik, hobe nuela bertze bat erostea erran zidaten. Merkeago ez, aise merkeagoa zitzaidan bertze berri bat erostea, zahar hura konpontzea baino. Zaharrak bortz urte erran nahi du.

Kontsumo gizarte honen motorra horixe duzue: erosi-erabili-erosi... hondatu gabe aunitzetan. Produkzioa handitzeko, kontsumoa handitu. Gauzen iraungitzea programatzen dute fabrikatzaileek. Gauzak ahulagoak egiten dituzte. Urte kopuru bat irauteko, ez ahal bezainbertze irauteko.

Hasi hortan pentsatzen eta ohartuko zarete zenbatetan aldatu behar izaten ditugun gauzak, bonbillak adibiderik garbiena. Orain usatuak gara, baina Edisonek bonbilla asmatu eta saltzerat atera zutelarik, 1500 ordu irauten zuen. Beranduago 100 urteko iraupenekoak asmatu zituzten, baina sekulan ez komertzializatu. Bertze gauza aunitzekin bezala, holakoak ez baitira konsumorako baliagarriak. Mundu mailako bonbilla

fabrikatzaileen elkarteak sortu zuten eta denen artean bonbillen iraupena murriztagoa komeni zela adostu. Eta holaxe hasi zen. Ondotik gainerako tresna guzietan bezala. Pentsa! Etxean dituzuen bonbilla horiek aise denbora gehiago irauten ahalko zuten. Gauza bera inpresorek, ordenagailuek, labadorek, telebistek, DVD aparatuek, argazki kamerekin... Aise gehiago irauten zutenak patentatu zituzten, baina bakar bat ere ez zen komertzioetarat ailegatu.

Industriaren iraultzarekin batean produkzioa handituz eta handituz joan da, merkatua ere bai, eta gaur egun dibertsio gisa erosten dugu, guttitan beharrarengatik. Janaria barne.

1933an Estatu Batuetan gertatu zen krisi handi harekin planteatu zuten iraute programatu hori, lehen bonbillarekin bezala produktu guzietan ematea. Kontsumitzailea erosterat behartzen dute. Limurtzea, seduzitzea, erakartzea zen helburua. Erosteko desioa sortu: Eros ezazu krema, ez zahartzeko: eros ezazu arropa, beti modan izateko; autorik hoberena eros ezazu, nolakoa zaren erakusteko, eta ez utzi zahartzerat, berri beti. Erosi azken berrikuntza!

Hauek dira oraingo kontsumoko 3 oinarriak: publizitatea, iraungitzea eta kreditua. Bankuek

ere badute zerikusia hemen. Eta zein da bizimodu honen ondorioa? Batetik, menpeko bihurtzea. Kontsumoarena eta bankuena. Eta bertzetik, zaborra, zaborra eta zaborra sortzea. Zaborra metatzen du funtzionatzeko modu honek: itsasoan, zabortegietan... Nonahi. Ikaratzekoa da Afrikarat, Ghanarat, igortzen dituzten Europa osoko zaborontzi pila. Bigarren eskuko zabor elektronikoz bezala izendatzen dituzte xehatuak, hondatuak diren tresna hauek guziak. Han dira zabor-mendi batzuetan guk zaborretarat botatako tresna guziak. Ezin dira erabili, ezin dituzte konpondu. Txatarra biltzeko bertzerik ez dute balio, eta hango herri, erreka, mendi, zabor-herri, zabor-erreka eta zabor-mendietan bihurtu dira.

Bertze batek zioen bezala, mundua nahiko handia da denen beharra asetzeko, baina sobera ttikia denen diru-gosea asetzeko.

KORRIKA 17

Korrika 17 Trebiñon hasi zen, hemendik pasatu eta Donostian akitu. Bi urtetik behin egiten den besta. Bi urtetik behin egiten den aldarrikapena eta sos biltzea gure herria euskalduntzeko.

Norbaitek pastel batekin konparatzen zuen Korrika, laster egin ondotik: esperoan eta esperoan egoten zara, eta ohartu ordukoz jan duzu. Halatsu pasatu da Korrika. Fite. Esperoan, denak airetuak egoten gara eta ohartu gabe, pasatu da eguna, besta, prestaketak... Motz.

Lagun batek erraten du kontraesanik gabe ezin dugula bizi, beharrezkoak ditugula, eta Korrikak ere kontraesana sortzen dit.

Batetik, nahiago nuke holakorik egin behar ez izatea. Hau da, Korrika ospatzen badugu, euskalduntze prozesua akitzekoa delakoz da, oraindik ere eskuararen erabilpen, normalizazioa, lortzekoa dugulakoz. Hau da maite ez dudana, Korrika egin behar ez izatea nahiago nuke.

Baina bertzetik, kontraesanaren bertze aldea: ospatu nahi izaten dut, besta politenetako bat iruditzen zait. Hunkigarria da. Korrika pasatzean, hatsankatuak barne, jende guzia kontent ikusten dut. Antolatzaileak ere bai, kezkak erdi atzenduz. Ez da haserre aurpegi bakar bat ere ikusten. Jende guziari euforia horrek indarra ematen omen dio, normalki kurrituko zuen baino distantzia gehiago kurritzeko. Jende guzia berdina sentitzen da, denendako lekua dago korrikan: gazte, haur, heldu eta zahar, neska eta mutiko, erdaldun eta eskualdun... Egiazki hunkitzen nau.

Baina, kontraesanaren bertze aldeak kezkatzen nau eta korrika igandean akitu bazen ere, akitu eta segidoan korrikaren beharra nabaritu nuen. Biharamunean, periodiko abertzale batean, unibertsitateko Euskara Teknikoaren irakaslea izan denaren iritzi artikulua leitzean. Iritzi hau espainolez idatzia zuen irakasle horrek. Eskuara irakasleak.

Eta korrikak kontent utzi baninduen ere, honek triste eta haserre. Esaldi ezagun hura gogoratuz, dakitenek ez badute erabiltzen... lasterka segitu beharko dugu, seguru. Oraindik ere kilometro andana kurritu beharko dugu.

Zenbat kilometro falta zaizkigu eskuaraz bizitzeko??

ESKOLA PUBLIKOA

Eskola publikoen eguna ospatzen da urtero. Zer da aldarrikatu beharra? Gure eskola ez da ba, publikoa, aspalditik?

Lagun irakasleari galde egin diot eta baietz, hala dugula, publikoa, teorian: publikoa, debaldekua, unibertsala, denena,... baina praktikan?

Espainiako Errepublika garaitik eta urte aunitzetako borroken ondotik, denen esku paratu zen alfabetatzea eta ikasteko aukera. Pentsamendu horrekin segitu zuten Espainiako trantsizioan eta hezkuntza plangintzak hola bideratu: denok ikasteko eskubidea dugu. LOGSE legea izan zen adibiderik argiena. Berez lege aurrerakoia zen: zentroek bazuten autonomia pedagogian eta kudeaketan. Pertsona guziak berdinak ziren eta baliabideak denen esku utzi behar ziren.

Eskola publikoari alimaleko baliabide pila eman zitzaizkion, ekonomikoak eta pertsonalak: egoitza berriak, mantenimenturako dirutza, material didaktikorako, profesional desberdinen-

dako... Plangintza horren harira, eskolan erakutsi beharrekoa ere aldatu egin nahi izan zen arras. Puntako hezkuntzako ikerketak martxan paratu nahi ziren eta azpitik goitiko aldaketa ekarri. Eskola Publiko ideala!

Baina teorian hola izan behar zena, maiz gertatzen den bezala, hutsean gelditu zen. Erreforma interesgarri eta aurrerakoi hori urtetik urtera husten hasi zen. Sosa behar zen hori dena aitzinerat eramateko eta sosa bertze toki batzuetarat joan zen. Ezaguna egiten zaizue, ez da hala?

Urtetik urtera gero eta sos guttiago eskaintzen zaio eskola publikoari . Horra Nafarroan errate baterako, zer pasatzen den sos publikoarekin. Batetik, eskuinak maiz erabiltzen zuen ideia martxan paratu zen : familia guziek aukera dute edozein ikastetxetan (pribatua edo publikoa) bere seme-alabak matrikulatzeko baldintza beretan. Hau da, eskola pribatuek sosa hartzen dute matrikularen arabera eta hor eskari/eskaintza zurrunbiloan sartzen gara. Sos bera banatzen da bi sareetan, publikoaren kalterako. Gero eta matrikula gehiago, gero eta sos publiko gehiago.

Bertzetik, azkeneko bortz urtetan eskoletako aurrekontuak handitu beharrean ttikitu egin dira materialaren kostua handitzearekin batera. Esko-

laz kanpoko jarduerak egiteko % 200 jautsi da. 2011n eskola publikoek ez dute sos bakar bat ere hartu hortako; eskuarazko jarduerak egiteko (antzerkiak...) diru-laguntza guziak kendu egin dituzte; ordezkapenak igortzeko denbora luzatzen da... Gure herrietako eskoletan azkeneko honek eragin handiagoa izaten du, irakasle bera zuzendari, idazkari, tutore... delakoz.

Eta akitzeko testu-liburuen afera. Eskolak ezin ditu hautatu. Hautatzeko zerrenda mugatua igortzen du Nafarroako Gobernuak horien artean hautatzeko. Horra aspaldiko autonomia pedagogikoa zertan gelditzen den. Ez da imajinatzen zaila baimenduko ez dituzten liburuen zerrenda: Euskal Herria hitza agertzen dena, euskal mapa, Historia, jendea, gertakariak.... azaltzen dituen.

Ezin da aipatu gabe utzi eskuararen afera. Publikoa, denona, baina zenbait herri eta zonaldetan eskuaraz matrikulatzeko arazoak dituzte.

Hor duzue gure eskola publikoaren erradiografia. Eta hor duzue holako bestak egin behar izatearen zergatia: eskola herrikoa, herrikoendako (beraz eskualduna), eta publikoa eskatzeko, denena eta denendako .

ISOLAMENDUA

Bakardadea, bakarrik egotea baino gehiago dela erraten zuen Joseba Sarrionandiak: Bakardadea bakarrik izatea baino gehiago da. Bakardadea, zure gelarat eskalera bera ere igaten ez denean da.

Bakardadeari buruz solastatu zen Fernando Arburua Elizondoko Merkatuko Plazan. Mahai inguruan izan beharrean, banku inguruan, jendartean, aroaren epeltasunean. Han ez zen bakar-daderik.

Bakardadea gauza ona izaten ahal da, noiz-behinka bakarrik egoteak ez digu kalterik egiten. Batzuetan bakarrik egoteko aukera probesten dugu, beharra sentitzen dugulako. Gelaren batean sartu, mendirat joan, begiak hetsi... Mila aukera. Baina guk nahi dugularik, berriz ere, bakardade hori hausten ahal dugu. Ez digu kalterik egiten, badakigulako edozein momentutan berriz ere norbaitekin elkartzeko ahal garelako, etxetik atera, menditik itzuli, telefonoz deitu... eta momentu baten buruan hortxe gaude, pote bat har-

tzen, norbaitekin solasean edo plazan jostetan...
Mila aukera.

Baina Fernando ez zen bakardade hortaz solastatu. Fernando kartzeletako bakardadeaz edo isolamenduaz solastatu zen. Bortxako bakardadeaz. Hau ez da guk tarteka hartzen dugun bakardadea bezalakoa. Kartzeletako bakardadea antolatua da, kalterako pentsatua. Bertze norbaitek nahita egina. Zigorraren gaineko zigor bat.

Alemanian hasi omen ziren presoekin frogak modu zientifikoan egiten helburu zehatzak lortzeko. Gero Frantzia eta Espainiak eskual preso politikoendako espreski bereganatu zuten sistema hori, beti helburu berarekin: presoekin nola akitu, nola hauek erotu eta beren burua galarazi.

Hasmentan, eskual preso guziak kartzela berean ziren. Hauek bakartzeko modua kartzela desberdinetan barna hedatzea zen, kartzela haietan ez baitzen aski zeldarik. Pentsatu eta egin; holaxe barreiatuak eta sakabanatuak ditugu preso guziak. Ez dira denak isolamenduan, ez, baina sakabanaketa ere isolamendu mota bat da.

Bakartzea, bakoitzaren inguruarekin haustea da: familiakoa, lagunartekoa, eta politikoa ere kasu hontan. Lotura horiek guziak haustea da

helburua: jendea luzez ikusi gabe, jendearekin kontakturik izan gabe. Helburua preso deuseztea.

Baina Fernandok ederki erran zuen bezala, preso politikoek ongi dakite zergatik dauden hor, eta horrek indarra ematen die. Elkartasunak ere indarra ematen die, eta familia eta lagunak hor direla jakiteak ere bai. Beraz, mantendu da taldea, bakartzeak ez ditu bere helburuak lortu.

Fernandok aipatu zuen bakoitzak bere estrategiak erabiltzen dituela bakardade hortan indartsu mantentzeko: leitu, idatzi, errutina bat sortu....

Baina tira! Ez dezatela horren beharrik izan eta izan dezatela guk bezala, bakardadea hautatzeko aukera. Hortan laguntzen ahal dugu. Gure esku dago presoen kontrako neurri horiek guziak desaktibatzea. Ez gaurko eta ez biharko. Ahal bada atzoko.

NEGELA

Eskola sasoa akitzen ari dela, azken hilabetea nahiko mugitua izaten du eskolak eta bere inguruak. Ikasleak, irakasleak, gurasoak.... denak akitzearen nahasmen hortan. Ibilaldiak egiten dira, bestak...kurtsoa akitzen dela ospatzeko. Holatsukoa izaten ahal da kurtso akitze bat, nahiko kaotikoa.

Giro hortan egin genuen joan den egunean Donostiako Zientzia museorat ibilaldia. Ederki pasatu genuen, dudarik ez. Gero kanpoan baliagarriak egiten zaizkigun gauzak magiaren bidez eta jostetan ikasi genituen.

Harrigarria da zentzumenekin sentitzen ahal duguna ikustea. Lehendabiziko ikasgaietan ikasi genuen ikusten dugun guzia ez dela holakoa. Perspektiba galtzen ahal dela joko optikoekin. Erne ibili beharra dugula, ziria sartzea nahi ez badugu!!

Bigarren ikasgaia: kodean komunikatzen bagara ere, erraza da bertze norbaitek gure mezua leitzea. Erne komunikazio tresnekin!

Hirugarrenean, argiarekin aritu ginen. Argiaren jokoa polita zen. Argiak bizitzaz gain, jostatzeko aukera ematen digu: erakutsi nahi ez duguna altxatu eta erakutsi nahi duguna nabarmendu. Hemen ere manipulatzeko aukera!

Laugarrena: tresna mekanikoen funtzionamendua. Egunerokoan arruntak egiten bazaizkigu ere, bizitza errazten digutela ikusi genuen. Abileziak indarra baino gehiago balio duela ikasi genuen. Eta esperimentatu. Poleak, palankak, itsasontziak, hegazkinak... baina baita solasak, keinuak...

Munduaren ezagutzan hortxe ageri da gure ingurunearen handitasuna, animalien ikusmena zen gehien harritu ninduen. Behorrek adibidez parean ikusten dutena mamu bat bezala ikusten dute. Izutzen dira. Aldeetakoa ikusten dute behar bezala. Euliek berriz dena bider ehun biderkatua ikusten dute, dena aunitzetan errepikatua.

Baina deigarriena, eta borzgarren ikasgaia eman zidana, negelarena da. Negelak, eta apoak ere pentsatzen dut, mugitzen dena ikusten du ba-

karririk. Hau da, geldirik bazaude, dena beltz ikusten du, eta mugitzen zarelarik, orduan bai, orduan ikusten zaitu. Politikoez bezala, ez da hala? Politikoez ere mugitzen zarelarik bakarrik ikusten zaituzte.

PASTORALA

Ikasturte hasmentan asmoak izendatzen ditugu: aurten kirola egiten hasiko naiz, frantsesa ikasten hasiko naiz, parte hartuko dut mugimendu sozialen batean... Asmo hauek izendatzen ditugun bezala, balantzea egitea ere batere gaizki ez. Tarte ttiki hontan ez dut udaren balantze osoa egiteko astirik izanen. Onak, txarrak, gustukoak, gogorik gabekoak, erosoak, deserosoak... denetarik izan ditut azken hiru hilabete hauetan. Baina bakarra aukeratzea erabaki dut: eroso, gustukoa eta ederra. Larrañen ikusi nuen pastoral.

Xiberoan urtero egiten duten antzerki horren zalea naiz. Antzerki luzea erraten dute batzuk. Eta bai, antzoki batean eginez gero luzea izanen zen, segur aski, lau ordu irauten baitu. Baina ez da antzerkia, pastoral da, eta pastoral izateko ez da luzea.

Han egiten diren gauza guziak ikusteko eta guziez ohartzeko doi-doia ematen du astia lau ordu horietan: lekuaz, kantaz, inguruaz, eszena-

tokiaz, jendeaz, konpainiaz eta abarrez gozatzeaz gain izan nuen aurten ere bertze gauza batzuez gozatzeko aukera.

Gozatu nuen gure historiaren zati bat kontatzen zutelako, zentsura eta manipulaziorik gabe, ohituratuak gauden gisan. Telesforo Monzonen bizitza kontatzearekin batera herri baten nortasun puska bat kontatu zutelako. Gozatu nuen Mola, Franco, Carrero Blanco eta holakoak tturkoen atetik ateratzen zirelarik, ziztuka hastean. Plazera. Gozatu nuen kantariekin batean kantuz aritu nintzelako. Monzonen kantak ezagunak ditugu.

Baina, gozatuz gozatu, beti bada zerbait bellarrian edo begietan min egiten duena. Edo atenzioa deitu guttienez. Xatanak agertu ziren dantzan, zirikan, eta horiekin irriz ari nintzelarik ohartu nintzen arras dantzari onak izateaz gain, berdin neskak nola mutikoak zirela han espantüka. Pastoralean, Zuberoan orokorrean, dantzetan egokitzapena eman da, naturalki. Berdin da nor den dantzaria, non eta dantzatzen duen, ongi egiten duen eta gogoz. Bihotzean min egiten zidan Mutildantzen garapen natural hori egitea zenbat kostatzen ari zaigun oroitzeak. Bertze uda bat gai honi buruz solastatzen.

Min ematen zidan ere, hontakoan belarrira, Monzon aritu nuelarik “Izan dadin Eüskadi bihar süstagarri” eta Agirre lehendakaria gero bihar ikusiren düzü zure Lürra salbatüa Monzoni erraten. Ba, ez süstagarri eta ez salbatüa. Atzoko bihar, gaurko gaur bada, oraindik ere sustatu gabe eta salbatzekoa baitugu gure herria.

Baina tira!!! Teleñeko kritiko haiek bezala ibiltzen banaiz ere, gozatu nuen pastoralean. Berriz ere kontent itzuli nintzen Baztanerat. Irri egin nuen eta ziztuka aritzearen terapiak on egin zidan. Konpainiak lagundu zuen hortan.

Jakin nahiko nuke Bergaran aste hondar hontan egin delarik nola pasatu zen: presoak aipatzean, eusko gudariak kantatzean, Carrero Blanco hiltzean, Franko ziztuka hartzean... ez ote zuten errejenta kartzelarat eramane...

Baina ez nintzen han izan eta ezin dizuet kontatu. Nahiago Larrañeko lürretan eta ekipean.

MURRIZKETAK ESKOLETAN

Murrizketak hasi zirelarik eguneroko gaia izan ziren eta luze jo zuten. Ni, guraso gisa eta hainbertzetan aditzen dugun hezkuntza kalitatearekin kezkatua, murrizketen ondorioen bila ibili nintzen. Ez nuen urrun joan behar izan.

Arizkunen berean kurtsoa bi irakasle faltan hasi zuten. Badakigu batzuetan bajak bat-batekoak izaten direla eta ordezkoa etortzeko, egun batzuk pasatzen direla. Hori ez da egokia, baina kasu hontan Hezkuntza departamentuan ekainetik zekiten bi baja horiek bete behar zirela. Horietako bat hiru urteko haurren irakaslearena, hau da, eskolarekin lehendabiziko kontaktua izanen duten haurren irakaslea. Horra kalitatearen adibide bat. Ez dakit horregatik ote den, baina joan den astean negarrez ikusi nituen denak... Hori gure etxeko atean. Hurbileko etxeetako atean berriz, jakin dut Baztanen hiru eskolatan pasatu dela gauza bera. Horren ondorioz, Iruritako tailerra aste betez gibelatu behar izan zen. Ondorioz bertze zenbait lan ere bai (proiektuak, koordinazioak...). Kalitatean lagungarria ez!

Baztanekin segituz, zenbait eskolatan logopedia saiorik gabe gelditu dira. Ezinen dira behar bezala tratatu komunikatzeko beharren bat duten ikasleak. Segur naiz barrideen barrideengana joaten banaiz, holako zientoka kasu ikusiko ditudala: Bertizaranan, Malerrekan, Bortzirietan, Ultzaman, Zugarramurdin... eta segi!

Nafarroan ikasleen kopuruak goiti egin badu ere, irakasleen kopurua murriztu da. Aise sos guttiago inbertituko du Nafarroako Gobernuak sare publikoan, baina poliziak bilduko dituen Segurtasunaren Hirirako gastua bikoiztuko du. 89 milioi! Foruzainen eskola kokatuko dute polizien hirian, bertzeak bertze. To hezkuntza kalitatea!

Hasi pixka bat pentsatzen: murrizketak egin behar dira. Ados. Ekonomia ongi antolatu nahi ez dutelako. Baina, zuen etxeetan zer murriztuko zenuketen? Hezkuntzan, osasun zerbitzuetan... edo polizia, porlana eta holakoetan? Nik segurik argi dut.

Hala ere, gauza guziek alde ona dutela erraten dute eta hala da. Murrizketei esker Otsondoko tunelik gabe geldituko garela ospatu zuen norbaitek. Holako "aitzinamendurako" bertze obraren baten gelditzea ere segur aski. Nik segurik eginen nuke.

Eta bertze batzuk, murrizketen gaineratik kalitatezko hezkuntzaren alde egin nahi dutela ere ospatu zuten, Oronozen. Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta. Biba zuek!

BISITA

Berriki aukera izan dut aspaldiko ezagun batekin elkartzeko; elkartzeko eta solasean aritzeko . Ez da batere zahartu. Ez da aunitz aldatu. Ez da beti berdin etortzen. Hontakoan nahiko goxo, nahiko trankil.

Sega batekin irudikatu dute beti. Beltzez eta beldurgarria. Nik egia erran ez dut sekula hola ikusi. Edo bai! Atzentzen da, baina bai, segarekin etorri izan da noizbait. Eta holaxe etorri zen barrideengana ere, niregana azkeneko aldiz etorri zen egun beretsuan. Ez dakit beltzez, baina bai segarekin.

Ba horixe, denei ez zaigu berdin agertzen, baina nik nirea kontatuko dizuet.

Kolore beroak zituen hontakoan, ilun kara, baina beroak. Gorri apal eta aldi berean indartsu batez beztitua zen eta ez zuen batere beldurrik ematen. Handia zen, bai, baina ez izutzeko moduko handitasunarekin. Ez dakit emaztekoa edo

gizonkia zen, baina bai zaharra. Begirada bero eta lasaigarri batekin etorri zen niregana.

Eta inportanteena, irriñoarekin. Gozoa arras. Ez zidan minik egin. Aldrebes, mina arindu zidan. Ohartu naiz, hala ere, ondotik utzi didala mina. Luzez kenduko ez dudana.

Solasean aritu ginen, aste pare batez, ia egu-nero. Ez gaitu konprenitzen. Ez du konprenitzen zergatik diogun halako beldurra. Zergatik asmatu behar izaten ditugun berari buruzko ipuinak. Polita iruditzen zaio ipuinak asmatu behar hori, baina ez du konprenitzen zergatik tematzen garen ipuin horiek sinesten. Zergatik atzentzen dugun maite dugun jendearen falta betetzeko dirrela, bertzerik ez.

Ez du konprenitzen biziaren izenean zergatik luzatzen dugun jendearen egona batzuetan, sufrimendua. Ohartzen da gure buruan pentsatzen dugula, ez bizitza akitzen ari den hortan. Horregatik beldurra eta tristura segur aski. Erran zidan sortu bezala, bizitza berari zor diogula heriotza. Bizitza osoa dugula hori konprenitzeko, eta hala ere... gostatzen zaigula onartzea.

Erran zidan elkarbizitza zaila izaten dela, eta beraz, berarekin zaila egitea onartzen duela. Nik erran nion hutsunea oraindik aise zailagoa dela.

Eta erran nion ia-ia konbentzitu ninduela, baina ez, esker mila.

Erran nion ez dudala sekulan berriz ikusi nahi.

ESTATISTIKAK

Badakit ez naizela batere orijinala baina hauteskundeak hautatu ditut solasgai. Kanpainaren azken astean garelarik alimaleko bonbardaketa izaten dugu eta hauteskundeak maiz izaten ditugu. Milaka gauza bururatu zaizkit gai horri buruz, baina bat hautatu behar eta inkestak eta estatistikak hautatu ditut.

Orijinaltasunik gabe segitzen dut denok ezagutzen dugun esaldia aipatzen badut, baina ezin erran gabe utzi: hiru gezur mota daude: handiak, txikiak eta estatistikak.

Hauteskundeetako parte dira estatistikak, kanpainaren parte. Alderdi bakoitzak berea egiten du, baina egiten duenaren arabera emaitza desberdinak daude. Edo interpretazio desberdinak, hobe errana. Ez diet kasu gogorrik egiten. Sekulan ez dut sinetsi estatistiken emaitzetan, interpretazioetan ez bederen, eta aipatzen baditut ez da bakarrik hauteskundeetan egiten den manipulazio horrengatik.

Orokorrean kasu eman behar dugu estatistika eta inkestekin. Hobe errana, ez diegu kasurik egin behar. Gehienetan intentzio zehatz batekin egiten dira eta maiz gaizki erabiliak izan dira. Egiten dituenak beti bere alde egiten du, helburu bakarrarekin: irabazle izatea, edo ez-galtzaile, edo interes baten aldeko informazioa hedatzea.

Erakusten dizkigute erakutsi nahi dituzten inkestak, baina ez dituzten guziak. Seguru badi-rela guretako interesgarriagoak, informazio zehatzagoarekin-edo. Komunikabide handietako zuzendariek eta jauntxoek beren mahaiko tiraderan altxatuak dituztenak omen.

Ba horixe. Kasu inkesta eta estatistikekin. Edo bertze aukera bat da zuen inkesta eta estatistika egitea. Nik nirea egin dut, eta horra emaitza: Baztanen heldu den igandean bozkatzera joan den %99,9ak bozkatuko du, baina bozkatu beharko zuten guziek ez dute bozkatuko eta bozkatuko dutenetako batzuk hobe bozkatuko ez balute.

SARIAK SARRI

Joseba Sarrionandiak irabazi zuen 2011ko saiakera arloko Euskadi Literatur Saria. Eman ondotik, ukatu zioten eta ondotik berriz, ematea erabaki zuten. Beharbada, ez zutelako egiten ari ziren liburuaren propaganda egiten segitu nahi. Lehendabiziko edizioa berehala agortu zen.

Joseba Sarrionandia kartzelatik eskapatu zen duela mende laurdena baino gehiago. Geroztik ez dakigu non den, baina dagoen tokitik edo egon den herrialdeetatik nobelak, narrazioak, poemak, saiakerak, pentsamenduk... igorri dizkigu. Aho-tsa ere bai! Batzuek erdi-mittoa bihurtu da, antifazadun idazlea balitz bezala.

ETAko militantea zelakoz eta gizarteratu ga-bea delakoz ez omen zioten saria eman nahi. Hala erran zuen Blanca Urgell Baskongadetako Kultura sailburuak, bergizarteratzea erabakitzen duelarik jasoko zuela sariaren dirua. Ez dakit Kultura sailburu baten hitzak izan beharko liratekeen hauek. Gehiago ematen dute Barne ministro batenak.

Ez dakit Baskongadetako Kultura Sailburuak ba ote dakien Sarrionandia beti egon dela gizar-tean. Kartzelan zelarik ere bai, dudarik ez! Eskapatu zelarik ezagutu genuen sarri-sarri kanta. Geroztik hamaika musikarik kantatu dituzte bere letrak; zientoka jendek irakurri ditu bere narrazioak; liburu andana bat agortu da; antzerki ikuskitunak egin dira bere poematan oinarrituak. Patxi Lopez baskongadetako lehendakariak ere, Sarrionandiaren poema bat erabili zuen lehendakari kargua hartu zuelarik. Hau nahiago nuke ez aipatu, baina gizartetik zein urrun dagoen ikusteko balio du.

Euskadi saria polemikoa izan da azkeneko urte hauetan. Sortu zenetik izan du susmo txarra. Sarrik, dagoen tokitik ere sumatu dio usaina. Berak halaxe erran du saria hartzeko kartan: Sari honen historia ez da batere ohoragarria izan. Fundatu zenetik, literaturaren balioa erakusteko eta idazleen eskerga aintzat hartzeko antolatu beharrean, alderantziz eratu zen: botere instituzionala laudatzeko. Instituzioak bere buruari ematen dion saria ote da?

Heldu den urtean ea ze sorpresarekin etortzen zaigun. Beharbada joan den asteko kanpainarekin, hau da, zaborra ez sortzekoa, heldu den urtean ez da Euskadi saririk izanen. Beharbada.

Edo sari bat emanen diogu Euskadi saria berari:
sariak antolatzen, sarri hanka sartzen duen litera-
tur saririk hoberena.

OPORRALDIA

Oroitzen naiz hiruzpalau orduko oporraldi bat izan nueneko egunaz. Aldika gertatzen da. Etxetik Erratzurat abiatu nintzen oinez. Han bidaien gaineko diapositiba emanaldi bat ikusten izan nintzen, bertze herrialde batzuk ezagutzerat joandako jendearen argazki emanaldi bat. Bidaia hauekin ere izaten ditut nire zalantzak, baina hori bertze batekoz utziko dut.

Hasmentan solasik gabe hasi zen emanaldia, eta ohituragatik-edo, argazkiak erakutsiz bezala bidaiariak bere bizipenak kontatuko zituela pentsatu nuen. Baina ez, eta arraroa egin zitzaidan. Minutu bat pasatu baino lehen ohartu nintzen ezetz, ez zutela solasaren beharrik. Isiltasunean gozatzeko argazkiak zirela. Opor edo bidaia sensazioarekin batean, argazki ederrez gozatu genuen.

Gaika sailkatuak ziren oporraldi aunitzetako argazkiak, ez zen bidaia bakarraren kontaketa izan eta bidaia guzietan ikusitako gauza komunak

ageri ziren: natura, jendea, harremanak, jendearen kezka...

Ikusi nuen nola gauza berak modu desberdinez interpretatzen, bizitzen ditugun. Han edo hemen, natura beti ederra; jendearen arteko harremanak egunerokoan, modu batez edo bertzez; jendearen galderak eta kezka ere berdintsuak (heriotza, sortzea, bizitza) baina modu desberdinez landuak. Eta akitzeko, bidaia lagunak. Azken finean horrek ere baldintzatzen du bertze herrialde baten ezagutza eta norberarena.

Lortu zuen aurkezleak bere bidaietako sentazioak guregana ailegatzea. Niregana bai bederen. Tarte ttiki hortan nire kezka guziak alde batera utzi nituen, bertze nonbait nintzela sentitu nuen. Hotza eta beroa ere bai. Horiek dira niretako oporrak, kezkarik gabe bizitzen ditudan momentuak, ttikiak izanda ere. Lekutik mugitu gabe izanda ere.

A! eta han nintzen bizkitartean bertze batzuk pilota partida ikusten izanen ziren. Aunitz, gehiengoak. Haiek ere beren gustuko tarteak izan zuten, seguru, baina, kezka bazter batean uztea lortuko zuten? Hartan Irujozaleek ez segur aski.

TTUKU-TTUKU

Solasaldi ez aski luze baina ez hain motz bat izan nuen joan den egunean bi lagunekin: bat Baztanen bizi dena baina kanpotik aspaldi etorria dena, eta bertzea baztandar peto-pettoa. Eztabaida zen baztandarrak TTuku-Ttukuak ote garen edo ez. Horren fama baitugu, bertze gauzen artean. Hola hasi zen solas-eztabaida eta baztandarra segituan sutan! Gure izaera defendatzen. Baina, gauza interesgarriagoak genituelakoz tartean, hantxe gelditu zen eztabaida, erdizka. Beraz, aukera hau probestu nahi dut nire ikerketaren berri emateko.

Hasteko definizioa behar nuen. Zer ote da Ttuku-ttuku izatea? Batzuendako deskonfiatua izatea da. Galdera baten aitzinean deskonfiantzarekin erantzuten omen dugu. Galdera bat egiten badiote baztandar bati informazioa eskatzeko, adibidez zenbat behor dituzu Erdizen? Erantzuna ez da kopuru bat izanen, zertarako jakin nahi duzu? erantzunen dizuazienda bezain tipikoa den baztandar horrek. Deskonfiantza agerian.

Ttuku-ttuku izatearen bertze definizio edo azalpen bat da ez ditugula gure aferak kontatzen, ez dugu galdetzen, ez dugu adierazten... Pareta bat dugu aitzinean. Egia ote da? Igorrerat, Zugarramurdirat, Hoztarat, Urnietarat, Iturenerat joaten banaiz, jendearekin erraztasun gehiago izanen dut hangoez lagunekin dituzten arazoei buruz edo ekonomiarekin dituzten kezkei buruz solastatzeko... ? Badaiteke.

Uste dut ez dela baztandarren berezitasuna. Ez ote den generazio zaharragokoena, tratante eta kontrabandisten arima. Ordu beteko solasaldia gogoratzen dut gure aita zenaren eta bertze tratante batekin behor kontu. Zuzenean prezioa galdegin beharrean behorra laudatzen hasi zen eta hortan ordu osoa, prezioa galdegin gabe. Eta noski, bertzeak erosi nahi ote zuen jakin ahal izan gabe. Ni ohartu gabe bederen. Berek elkarrizketa hartatik informazio pila bat atera izanen zuten, doike. Handik bi astera behorra erosi zuen.

Definizioa ezin zehaztuz, ikerketa motz-motza hasi nuen. Arizkunen aterratutako gipuzkoar pare batekin. Batak ezetz erran zidan. Ez ginela hetsiak. Alderantziz! Bere lehendabiziko inpresioa jende irekia eta alaia ginela izan omen zen. Harritua zenbat kantatu eta dantzatzen genuen eta zein erraz hurbiltzen ginen solasa ema-

terat. Inauterietan ezagutu gintuen, baina tira!!
Ikerketa guziek badute beren tranpattoa.

Bertze batek ere ezetz erran zidan. Ez zitzai-
ola iruditzen. Bazuela hemen norekin solastatu,
norekin besta egin, norekin haserretu...

Beraz, nire ondorioa da ez dela egia. Baztan-
orduarena egia ez den bezala. Ttuku-ttuku hitza
nondik atera den jakin nahian, hau dut buruan
bakarrik: Baztandarra Ttuku-Ttuku gasna erre jale.
Sure gan ta batre gabe. Ez dakit hau aitzineko de-
finizioekin lotzen ahalko dudan. Mariano Izeta-
ren hiztegian berriz, Ttuku-ttuku hitzak urratsez
urrats erran nahi du. Mantso-mantso, pausoz
pauso.

Beraz, trankil, baztandarrak. Trankil segi-
tzen ahal duzue zuen bihotza irekitzen etortzen
den edozeini. Baina beti ttuku-ttuku.

KOLOSALA

2012ko urtarrileko manifestazioak mugitu zizkidanak oraindik ere bueltaka ditut. Bai buruan eta bai tripetan ere. Preso bakoitzeko senide bat ikur batekin agertzea aski zen kolosala izateko. Duela 10 urte senide gisa ikusten nituen aurpegi batzuk oraindik hor ikustea ere aski zen, kolosala izateko. Aurpegia triste baina harro eta emozioa ezin kontuz, senideen leku berriak hartzen zituztenak ere aski ziren, kolosala egiteko.

Agindu zuten isiltasuna zen kolosala ez zen gauza bakarra. Aspaldiko partez manifestazioa hasi baino lehenagotik ere, isilunerik ez zen izan karrika handi haietan.

Dena errana da, ez dut gauza berririk errateko, baina ondotik prentsan leituz nire tripa eta buru nahasietan gelditu diren esaldiak errepikatuko dizkizuet. Batzuk baikorrak eta bertze batzuk... zuzenean gezurrak.

Horra! Zeinen gustura gelditu den Diario de Noticias, egia erran gabe ere. Zenbaki bakarra

eman dute: 300 autobus. Zenbaki gehiagorik ez. 90.000 zenbakiak beharbada sobera karaktere ditu neurri ttikiko artikulu batendako.

Gezurrak baztertuko ditut. Nahiago esaldi baikorrek, motibagarriak... ondokoetarako animatuko gaituztenak. Lau esaldi lekuko gisa.

Bat Ines Osinagak akitzean errana: bihartik aurrera aldi berria zabaldu dadin mugarri bat jarri dugu gaur. Xabier Mikel Errekondok presoan gaiari urgentziaz heldu behar zaiola erran zuen. EAJkoen komentarioren bat bilatzen saiatu naiz, baina ez dut ikusi. A ez!! Hauek ez ziren joan!! Baina hitza eman dute beren modurat egingen dutela lan. Leitu ditudanen artean inarrosi nauena Mertxe Galdosena: Oraingo legearekin 200 bat preso kaleratzen ahal dituzte. Hurbildu, denak.

Manifestazio izugarria, ikaragarria, alimalekoa, egundokoa, sekulakoa, itzela.... kolosala izan zen. Normalki baino tamaina handiagokoa. Horixe baita kolosalaren definizioa. Asteak pasatu genituen Kolosala izanen da aditzen. Kolosala da erraten genuen Bilboko karriketan. Kolosala izan zen erraten dugu gaur.

Eta orain? Egingen dugu zerbait, doike, hantzen guzien artean. Hala espero dut, egunen ba-

tean berriz ere kolosala izatea, baina ez manifestazio bat, ospakizunen bat baizik. Badugu zer egin.

TXILLARDEGI

Txillardegi hil zela eta, goiti eta beheiti ibili zen prentsa bere ibilbideaz solasean. Nik leitzen dudan prentsa bai bederen. Bere lana, bere politika, bere literatura... uzta ederra negua izateko. Merezitako lore guzien artean, buruan gelditu zaidan azkena: Txillardegi, ekologista eta antitaurinoa. Niretako lema.

Baina leitu edo aditu nion lehenbizikoa izan da beti gogoan izan dudana. Berak erraten zuen euskararik gabe Euskal Herriak ez zuela zentzurik. Abertzaletasunak ere ez zuela zentzurik euskararik gabe. Niretako lema hori ere bai.

Erran dudan bezala, prentsan aunitz zegoen leitzeko. Batzuk leitu nituen bakarrik. Erranen dizuet zeinek ez: Euskaltzaindiako ordezkaria-rena adibidez, ez nuen leitu. Hiru aldiz ukatu zioten euskaltzain oso izateko izendapena. Ez zuen iritzi politiko egokiena nonbait, hala izateko. Gero proposatu omen zioten, eta berak ukatu.

Leitu ez nituenen artean bertze bat espainolez idatzi zuen politikariarena izan zen. Anti-omenaldia. Eta bertze bat, ere ez, bere iritzi artikulua gehienetan espainolez idazten dituen politikari euskaldunarena.

Haserretzen nau euskaldunak espainolez solastatzen direlarik, konprenitzen ez dutenek konprenitzeko. Berriz ere ez dute konprenituko! Ados, itzultzeko prest naiz, behin eta berriz. Espainolez solastatzeko ere bai. Baina konprenitzen ez duen horrek bere aldetik ere esfortzu bat egiten badu ulertzeko. Ikasteko. Bada hortarako aukera. Hizkuntza bat da, hori bakarrik eta hori guziazia.

Ez dute ikasteko beharrik sentitzen eta ezta sentituko ere, hola segitzen badugu. Ez dute ikasiko, ez dute solastatuko, ez dute erabiliko. Abertzale belarrimotz sutsuak manifestazio bakoitzeko euskaltegi ordu bat emanen balu, gaurgero EHEko manifestazioek bertze zentzu bat izanen lukete.

Ingelesa ikasi zuten gure artzainek Amerikan periodikoa leitze hutsarekin. Beharra. Espainolez ikasi zuten gure amatxi eta aitatxiek eskoletan eraztun bat eramate hutsarekin. Beharko! Ez dut metodo hori erabili nahi, ez pentsa! Baina

ikasten ahal dela ikusarazi bai. Beharra sentitu behar.

Joan den egunean galdegin zidan batek, eztabaida erdi-sutsu baten ondotik: Baina zer nahiago duzu? Euskal Herria euskalduna baina Espainiaren menpe? Edo independentea eta erdalduna, gero euskaldunduko dena?.....Posible ote da? Bi horien artean aukeratu behar ote dut? Independente eta euskalduna nahi dut. Dudarik gabe. Ez dut bertze moduz ikusten...

Horixe da Txillardegik erakutsi didana, hortan egiten nuen bat berarekin. Euskarak, erabiltzekotan du zentzua, ez modu sinbolikoan, erdaren itzulpen gisa, portzentajea betetzen.

Berarekin bat egiten nuen bertze gauza bat ETBri buruzko iritzian zen. Nik ere ETB aspertu artio ikusten dut. Hau da, pare bat minutuz. Salbuespenak salbuespen.

ZIKLIKOA

Bizitza ziklikoa omen da. Garapenak berak berriz ere hasmentako biderat eramaten omen gaitu. Historia ere ziklikoa da. Historian aunitzetan ikusi dugu egoerak errepikatzen direla. Ohartuko zineten urteak ere hala direla. Ziklikoak. Periodikoetan bai segurik.

Afera da urtero, sasoi berdintsuetan, bergauza leitzen dudala egunkarietan. Esplikatuko dizuet: edozein egunkari hartu eta joan den urtekoa, edo duela bi urtekoa, edo ez dakit zenbat urtekoa leitzen ari naizela ematen du. Urterokoa, zenbait notiziatan. Notizia batzuk ez baitira berriak.

Elurra egin zuela paratzen zuen. Bai, neguan gara. Urtero portadaren erdia hartzen du berriak: elurra hondartzaraino. Eta udan han agertuko da bertze berri bat: hondartzak beteak daude. Urtero gauza bera etortzen zait bururat: hori ote da eguneko berririk inportanteena edo deigarriena? Ez da notizia. Notizia litzateke hondartzak neguan beteak izatea, ez da hala?

Periodikoa leitzen segituta, ohartu nintzen bertze berriekin ere gauza bera pasatzen dela: langabetuen kopurua handitu egin da. Hau ez da berria. Martin presoak aske uzteari uko egin diote. Gauza berririk ez. Orijinala ez bederen. Seaskak salatu du aurtengo ikasleek ez dutela baxoa euskaraz egiteko aukerarik izanen. Bertze bat!! Berri hauek guziak déjà vu bat ematen dute, gaurgero ikusiak ditugu.

Baina horra non, iritzi artikulu batean gauza berri bat aipatzen zen. Biba! Atentzioa deitu zidan, identifikatua sentitu nintzelakoz tituluarekin : Heldutasunerat iristearen plazera. Maiz eztabaidatu dut edo eztabaidatu nahi izan dut gaztetasunaren gain. Gazte sentitu, arima gaztea, gazte bezala aritu, gazteago ematen duzu, ez duzu adin hortakoa ematen. Ez dakit ongi non den gakoa, baina haurtzarotik nerabezarorat pasatzean bezala, edo nerabezarotik gaztarorat bezala, gaztarotik helduarorat pasatzea traumatikoa izaten da jende batzuek. Gaztarorat pasatzea ongi ikusia da, baina helduarorat? Eta zer erranik ez zahartzarorat.

Helduaroa ez da existitzen. Edo ez da onartua. Eta emakumea bazara, karga gehiagorekin oraindik. Gaztea ez bazara, zaharra zara. Eta alderantziz. Ez da tartekorik. Eta zaharra izatea

gaizki ikusia da. Arazoa da ekintzak, izaerak eta nortasunak sailkatzen ditugula. 80 urteko bat paraxutean ibiltzen bada, gaztea da? EZ!! 80 urteko zaharra da paraxutean. Gai delakoz hori egiteko, zaharra izanda ere. 50 urteko heldu batek gaur-pasa egiten badu, beti-gazte deitzen dugu. EZ!! Heldua da, bestondo gogorra izanen duena, baina besta konplexurik gabe egiteko gai dena.

Iritzi artikuluak horixe erraten zuen. Inportanteena oraina dela, adin bakoitzeko oraina. Gazte, zahar, heldu... ez du inporta, gozatuz bizi. Eta ni 40 urteak bete berriak, heldua naiz, emazteki heldua. 40 urtekoa ematen dut eta arima ere, 40 urtekoa dut. Gorputza bezala. Eta 40 urtekoen gauzak egiten ditut, egiten ahal ditudan guziak. Gorputzak eta gogoak mugatzen naute. Gazte nintzelarik bezala.

Eta heldua naizelakoz, elur bolekin gerra bat egin nuen periodikoa baztertu eta gero.

EUSKARAZ KONPLEXURIK GABE

Manifestazio bat egin behar izan zuten euskaraz mintzatzearen konplexua astintzeko, hirietan euskarza harrotasunez egiteko. Hasmentan harritu nintzen pixka bat, baina segidan ohartu nintzen nik ere gehien bisitatzen ditudan euskal hirietan maiz erdarak erabiltzen ditudala komunikatzeko, ondokoa euskaldun den edo ez jakin gabe.

Txillardegi aipatu zuten manifestazioan, eta hark argi zuen norberaren lurraldean beharrezkoa ez den hizkuntza guzia desagertu egiten dela, eta hori ez gertatzeko euskarak lehentasunezko estatusa behar duela bere lurralde osoan. Nik, Txillardegiri kasu eginez (eta bertze zenbait sentimenduri) eskuaraz bizitzeko hautua egina dut. Ahal dudan neurrian, dudarik gabe. Afera da bazuetan ahal baino guttiago ere egiten dudala.

Burujabetzaren garrantzia ere aipatu zuten, baina ezin dugula horren esperoan egon. Egiteaz

gain, eragin beharra dugula, hizkuntza bat dela erakutsi. Turuta jole batek erran zidan bezala, zenbait mito hautsi behar ditugu, hizkuntza guziek zailtasunak bezainbertze erraztasun dituztela erakutsi.

Bertze gauza bat da jatorri bereko hizkuntzak ikastea errazagoa izatea. Hau da, gaztelania dakienak frantsesa euskara baino errazago ikasiko du, dudarik ez, baina horrek ez du erran nahi euskara zailagoa denik. Motibazio kontua da. Intereseko zerbait baduzu, errazago ikasiko duzu. Hor duzue, kanpoko batez maitemindu eta maitearen hizkuntza segituan bereganatu duenaren adibidea. Rugbyaren afizioa maitale rugbylarierekin sortzen den bezala.

Zaila izatearen mito horrek kalte handia egin dio gure hizkuntzari, eta neurri batean, gure errua ere bada. Maiz aldarrikatu izan dugu arras hizkuntza ezberdina dela, ez dela bertzeak bezalakoa. Bla ta bli ta bla. Mito horrekin akitu beharko dugu. Bertze hizkuntza bat da eta kitto. Gurea. Ingelesa ere espainola eta frantsesaren estrukturatik arras urrun da, baina ia mundu guztiak ikasten du. Edo txinera bera!

Eta nola eragin jendeak ikas dezan? Batetik motibazioren bat bilatuz eta bertzetik beharra

dutela ikusiz. Aunitzetan gurasoak beren haurrei eskola kontuetan lagundu beharrearekin motibatzen dira. Bertze batzuek, inguruak euskaraz egiten badie, beharra sentituko dute.

Euskal Herri euskaldun batean bizi nahi dugunon lehendabiziko hitza euskaraz beharko luke. Lehentasun gisa. Niri, hautu hori eginda ere, maiz krask egiten dit lehentasunak. Zailtasunak izaten dira, eta hortaz segur aski, aldika espainolez egiterat jotzen dut. Gertatu izan zait, Iruñean adibidez, dendetan, ostatuetan, ospitaleetan... esfortzu bat egin behar izatea euskaraz egiteko lehendabiziko solasa. Gertatu izan zait esfortzu horren ordainez euskaldunak izatea dendetan, ostatuetan, ospitaleetan.

Hau ere ikasi beharra dugu, eragiten, konplexua kentzen. TELP ikastaroan eman dut izena, euskaraz eroso nonahi eta noiznahi bizitzeko tailerra. Gaizki sentitu gabe. Kontatuko dizuet ondoko batean. Seguru sorpresaren bat hartuko dudala nire buruarekin.

TELP

Erran bezala, TELP tailerrean parte hartu nuen. Han errandako guzia posible ez bada ere, maitatu nuena eta ikasi nuena kontatuko dizuet.

Hasteko TELP tailerraren erran nahia: taller d'espai linguistic personal. Hau da, norberaren hizkuntza esparruan aritzeko edo ezagutzeko, handitzeko... tailerra. Erran nahi baita, zein den eskuaraz solasteko erabiltzen dudan espazioa. Eskuaraz non aritzen naizen. Bakoitzak bere espazioa du, bere mapa, edo hobe erranta, egiten du. Eskuaraz non solastatzen den eta non ez, norekin eta norekin ez. Dudarik ez, espazio hori aldatzen ahal dugu, handitu. Nire helburuetako bat hori zelakoz agertu nintzen ikastaldirat.

Nire espazioan adibidez, ospitaleak gorritz agertzen zaizkit, edo Nafarroako Gobernuko administrazioa. Hauetan eskuaraz egitea gostatzen zait. Nahiz eta, zuzenbidean, eskubidea dugun eskuaraz egiteko. Ohartu naiz hainbertzetan egin didatela erdaraz, etsitu dudala eta zuzenean espainolez zuzentzen naizela holako lekuetan.

Aunitzei gorriz agertzen zaigu ere atzerritarren eremua: hobe konprenituko du Australiako batek espainola euskara baino? Ez dut uste. Eta hala bada ere, jakin beharko du hemen bertze hizkuntza bat badela, ez da hala?

Zenbait azalpen psikologikoren ondotik, ditugun trabak gainditzeko baliabideak eskaini zizkigun Gemma Sanginesek. Baliabide hauek sei mailatan aurkeztu zituen euskaraz komunikatzeko GUK trabak non paratzen ditugun agertzen dituztenak.

Lehenbizikoa: itxura. Itxurarengatik pentsatzen dugu maiz: hau ez da euskalduna. Eta espainolez egiten diogu zuzenean. Nolakoa ote gara euskaldunak? Zerk bereizten gaitu? Goazen probatzerat, probatu gabe ez dugu jakinen. Euskalduna bada, komunikatzeko errazago, eta erdalduna bada, beharbada opariren bat egingen diogu. Hizkuntza badela ezagutu, edo praktikatu, ikasten ari bada.... Maiz sorpresa hartuko dugu.

Bigarrena, keinua da. Behin euskaraz egiten hasi garela, horra non ondokoak E?? erraten digun. Segidan pentsatzen dugu ez dakiela gure hizkuntza. Beharbada ez du aditu, bertzerik gabe. Beharbada, ikasteko asmoa du. Beharbada, ikasten ari da... Baina ez, guk segidan erdaraz. Honi

ere hizkuntzaren oparia ematen ahal diogu: ikas-
teko aukera, praktikatzeko, ezagutzeko...

Hirugarren eskaileran gaude. Zailtasunen
bat ikusten dugularik: euskalki desberdina, edo
euskaldun berria eta zailtasunekin. Ez dugu tran-
kil, eroso solasean segitzen eta maiz erdaraz aki-
tzen dugu berriz ere. Bada euskaraz segitzeko
aukera.

Laugarren maila: Ez dakit erantzuten duela-
rik. Ez du erran nahi konprenitzen ez duenik,
ikasi nahi ez duenik, gure keinuekin moldatuko
ez denik... Euskaraz komunikatzen segitzeko au-
kera bada oraindik, esfortzua eskatzen badu ere.

Bortzgarrena: ez dut konprenitzen erantzuten
duenean. Hor sortzen ahal dira arazoak komuni-
katzeko, jarreraren arabera. Gure esku da saia-
tzea. Azken finean zer egingen genuke dakizkigun
hizkuntza bakar bat ere jakinen ez balu? Saiatu!

Eta azkena eta konfliktiboena, bertzeak ja-
rrera erasokorra duelarik. Hau da, Hablame en
cristiano, eta holakoak erraten duenarekin. Horko
ere zenbait baliabide ezagutu genituen. Zer nahi
dugun pentsatu behar dugu eta horren arabera
jokatu. Baloratu solastatzea merezi ote duen.
Hala bada, beharrezkoa bada, segi erdaraz eta ki-

tto, gaizki sentitu gabe, eroso. Ez du merezi bronketan denbora galtzea. Interesik ez badugu, ironia erabiltzen ahal dugu: Beti agintera erabiltzen duzu jendearekin? Edo bertzerik gabe, segi ondokoarengana. Ez dut uste ingelesez etortzen zaionari hala erranen dionik. Hemen jarrera arazoa dago, baina ez gurea, erdaldun militantearena. Ez galdu indarrik eta eman oparia zure buruari.

Akitzeko nire oparia hauxe duzue: tailerren laburpen hau eta joku hontan, kirol hontan, pixkanaka entrenatzen hasteko konbitea. Ni gaurgero praktikatzen hasia naiz.

PILOTA HILTZAILEAK

Iñigo Cabacas Lizeranzu. Izen horrekin lotua geldituko zait gomazko pilotak hitza. Lasa eta Zabala kisu biziarekin bezala, edo Unai Romano torturarekin bezala. Baina ederki dakit ez direla bakarrik izan. Gomazko pilotak aspalditik airean ibilki ditugu, tortura bera bezala.

Cabacas hil zen aitzineko asteko greba egunean ere, ederki gastatu zituzten pilotak Iruñean, adibidez. Kautxuzko pilotak bota zituzten han, Europako herrialde gehienetan debekatuak dauden gomazko pilotak, 720 km orduko abiaduran, baimendutako baino aise indar gehiagorekin. Eta ez airerat, ez, jendea zegoen alderat zuzenduz.

Europako komisioak aspaldi aholkatzen du ez erabiltzeko, arriskuarengatik. Polizien armen sailkapenean arma hilgarriak dira. Hala izendatu dituzte. Heriotza zigorrik ez duen herrialdeak ez lukeela erabili beharko diote. Eta hala ere, kasurik ez. 2013. urtetik aitzinerat, salbuespen egoeretan bakarrik erabiltzen omen dituzte (brigada mugikorrek eta bereziek). Jakin nahiko nuke sal-

buespen egoera horiek zeinek diren. Fite dena salbuespen egoera izanen da, protestak debekatu nahi dituztelakoz.

Adibidez, poliziaren aitzinean jartze hutsagatik zigortuko gaituztela jakin dut. Lurrean jartzeagatik. Protesta pazifikoa deitu izan duguna debekatua. Beraz, salbuespen egoera edozein izaten ahal da. Pilotak edozein momentutan. Pilotak, indar erakustaldiak, polizien beharrik gabeko ordu estrak...

Aberri Eguneko manifestazioan bezala. Ema ten zuen manifestaldi bezainbertzeko polizia desfilea han ikusi genuena. Lerrotan, militarki antolatatuak. Edo bertze edozein protesta, elkarretartzeetan konparazione. Poliziaren presentzia beti. Presentzia hutsa da, ikusi hor daudela, beharrezkoak direla ezdakitzer zaintzeko, estatuak hor daudela, ez dezagun atzendu.

Erran dudan bezala, pilotak aspaldi ibilki dira airean Euskal Herrian. Aspaldi zauritzen: begi galduak, zauriak hanketan, izterretan, ipurdietan, bizkarretan, buruetan, zangoetan, besoetan... Baina halako batean hilgarri gisa izendatua duten beren armak, bere lana egin du eta mutiko bat hil. Kasualitatea? Kasualitatea da gehiagotan

ez pasatzea, hildako gehiago ez izatea. Ikerketa eginen omen dute. Ba ote?

Yolanda Barcinari tarta bat bota ziotenei 4 urteko kondena eskatzen zieten. Egun berean hil zen Iñigo Cabacas. Tarta bota zituztenak atxilotzeko dispositibo osoa paratu zuten martxan. Cabacas nork hil zuen, nork agindu... ez da zaila izanen jakitea, baina badakit ez dutela zigortu beharrekoa zigortuko. Hasteko hor ibilki da, trankilki, bere dimisioa eskatzen duten bizkitar-tean.

AUNITZ URTEZ KRUTWIG

2012ko maiatzaren 15ean Federiko Krutwigek 91 urte bete zituen. Badakit ez dela urte borobila, baina berdin zait. Egun aproposa iruditzen zait pertsona berezi honen konturen bat botatzeko. Baten bat bakarrik.

Bere bizitzaz gutti dakit, euskal idazle eta politikaria izan zela. Bere lanari buruzko berri handirik ere ez, Vasconia izan da leitu dudana bakarra. 1963an argitaratu zuen, ni oraindik existitu ere ez nintzelarik. Modu eta ikuspegi iraultzaileaz kontatzen du Euskal Herriaren historia. Sabino Aranaz geroztik garatu zen nazionalismoaren kritika zorrotza egiten du, bertze aber-tzaletasun mota batez solastatzen da, mugimendu antikolonialisten bidetik.

Liburu hau ETaren inspirazio iturri gisa ikusten zuen Franco diktadore espainiarraren politikariak. Pentsa!!! Euskal Herrian gerra ondoko belaunaldiak inarrosi zituen liburuak, debekatu zuten, baina horra zein kaikuak, Manuel Fraga Iri-

barne jaunaren kalkulu txarrei esker izan zuten euskaldun aunitzek liburu horren berri.

Fraga garai hartan Francoren gobernuko Informazio eta Turismoko ministroa omen zen. Jendearen irizpidea moldatu eta gidatzeko, hau da, manipulatzeko, propaganda-astekari bat argitaratzea bururatu zitzaion: El Español izeneko. Aldizkari hortan Krutwigen Vasconiaren zati hautatuak publikatzen hasi zen. Los delirios del separatismo deitzen zuten atal hura. Hantxe euskal politika eroen delirioak zirela agertu nahi zuen. Eta horra non, Euskal Herriko gazteria liluratzen zen delirio haiekin. Eta irakurtzen! Gure historia zaharra modu berrian kontatzeaz gain, gertakari hurbilak interpretatzeko modu tremendista eta zirikatzaile hartan egia sakon aunitz erraten zituelakoz, aunitzen begiak irekitzeko.

Krutwigek askatasunaren aldeko borroka, euskara, unibertsaltasuna eta kultura aldarrikatzen zituen. Euskal gazteriak modu hortako mezuak nahi eta behar zituen. Bistan da, erdal eta eskuindar prentsa manipulatzailea baliatzen jakin zutela garai hartako gazteek.

HIGIENISMOA

Zoritxarrez normalki eritasun batek eramaten gaitu bizitza osasuntsua ezagutzerat. Halaxe ezagutu nuen nik ere higienismoa, elkarrentzuketeta, makrobiotika... Baina egia da gauza gehienetan bezala, oinarriak egiten duela geroa. Eta oinarria Sumendi elkartearekin egin nuen: higienismoa, baraua, elikaduraren zentzua eta gainerakoak han ezagutu nituen. Eta horra non, aspalditik berririk izan gabe Sumendi elkartearen sortzaileetako bat den Eneko Landabururen elkarritzketeta bat leitu nuen Argia aldizkarian. Elkarritzketeta motza bazen ere aski baliagarria.

Deskantsuaren apologia egiten du solasaldian. Deskantsua prebentzio gisa eta sendabide gisa hartu behar dela dio. Elikadurarekin lagundua, dudarik ez. Nekatuak gaudelarik zer hartzen ahal dugun galdetzen dio kazetariak eta berak zer uzten ahal dugun pentsatzeko erantzuten dio. Bizitza erritmoa, zabor elikadura edo elikadura desorekatuarekin eritasunak bazkatzen ditugula. Maiz erraten dugu astirik ez dugula. Deskantsatzeko ere ez. Astia badugu, orduak hor daude.

Afera da oharkabeen edo nahita, baina lehentasunak paratzen ditugula. Bakoitzak bere gustuak edo disgustuak hartzen ditu kontuan, baina astia hartzen dugu nahi dugunarendako. Hartzen ez badugu, benetan nahi ez dugulako izanen da, guretako inportantea ez delako edo inportantziarik ematen ez diogulako.

Deskantsua beraz, sendabide arma gisa: deskantsatuak gaudelarik guttiago eritzen gara.

Ondotik garbitasunaz solastatzen da, gorputz barneko garbitasunaz. Higienea hitzak grekeraz bizitzeko modua erran nahi omen du. Bizitzen jakin behar dugula, eta gorputz barneko garbitasunaz arduratu beharra dugula. Edo ez zikintzeaz, berak dioen bezala, prebentzio gisa. Barneko organoak ez zikintzeaz, eta nola ez, alde psikologikoa ere osasuntsu mantentzeaz.

Elikadura libre, garbi batek kontsumismotik urrun egon behar du. Kontsumo arduratsua sartzten da hemen, eta ez gizarte kapitalista honek bulkatzen diguna: erosi janaria prezio merkean, zabor janaria, lasaitzeko botikak, kontent paratzeko drogak, hau eta bertze. Kontsumismoaren menpekotasunik gabe, lan guttiago izanen dugu gure burua garbitzeko. Kontsumismo horrek sinestarazten digu kanpotik etorriko zaigula la-

guntza. Kanpotik sendatuko gaituzte eta gero eta gauza gehiago beharko dugu ongi sentitzeko.

Gure gorputzak eta gure adimena kapazak dira hori egiteko, kanpoko laguntza materialik gabe. Enpresek eta gobernuek indar handia egiten dute guk kontsumitzen segitzeko. Erosketen adiktuak behar gaituzte. Erraten digutena egin, erraten digutena erosi eta horrekin korrontean sartu, denak berdin, korronteari fidel.

Eta horrekin akitzen du elkarrizketa Eneko Landaburuk: Hildako arrainak bakarrik eramaten ditu korronteak.

PUERTO

Aspaldi egon gabeko leku bat bisitatu dut, Puerto de Santa Maria. Han egon nintzen azkeneko aldian lagun baten bila joan nintzen, 23 urteko kondena bete ondotik kartzelatik atera zen egunean. Geroztik urte batzuk pasatu dira eta zenbait aldaketa sumatu ditut kartzela inguru haietan. Bertze zenbait gauzek berdin-berdin segitzen dute.

Batetik el Cepo ostatua. Harat goizean goiz ailegatu eta egun osoa han pastuko dutela jakinda ere, gustura hartzen dute senideek eta lagunek atsedena. Han ez da gauza gogorrik aldatu. Hantxe dago makro bandera espainola bat, bandera ttikiz inguratua. Atera kontuak, ostatuko azukre-etan ere bandera espainola dute!!

Zerbitzariak ere berberak dira. Zaharra ez nuen lanean ikusi, baina han zen. Egun batean faxa batzuk erasotzerat etorri eta erantzun zien hauek nire klienteak dira, bake eman. Ez dakit semeak berdin eginen ote duen.

Han segitzen du Iturgaitzen argazkiak ere (oroituko zarete doike, Iturgaitzez). Orain ondoan Basagoitirena dago. Hauxe da aldaketa. Zurrumurruek diote hauetakoren batek eskatu ziola ostatuko nagusiari presoan familiarrei ez zerbitzatzeko. Jakinen ote dute ostata hesten duelarik hantxe utzi izan duela terraza irekia zenbait ur botilarekin? Itzala eskaintzen ziela euskal presoan lagunei?

Bertzetik, kartzelan ere aldaketak. Lehen bi ziren, orain hiru. Hirugarrenean nuen bisita, berrienean, eta bisita erosoagoa da, baina kartzela. Bisitako denbora ez da aldatu: berdin, 40 minutu, motz. Funtzionarioak desberdinak dira, baina berdin funtzionatzen dute. Bisitetako pertsona desberdinak dira, baina hor da beti elkartasun giroa. Baten lagun gaztea, herriko berriak emanen dizkiona bere lagunari; bertze baten andregai bere apaintze erritualarekin, duen tarte motz hortan hilabete osoko maitasuna eskaini nahian eta hartu nahian; ondoko baten ama, adinekoa, zori-ontasun dosia hartzerat eta ematerat joana. Bidaia hau egiten duela ikustean, ezin mirestea saihestu. Edo Patxi bezalako pertsonak, jubilatuz geroztik bere bizitza osoan sinetsi duen hortan lanean segitzen duena: justizia, askatasuna... eskubideak defendatzen.

Berarekin ikasi nuen inauska hitza, inausgabea. Sekulan kimatu, inausi ez den arbola izendatzeko. Eta beharbada horixe da urte hauetan guzietan batere inaustea lortu ez dutena, presoekiko elkartasuna eta maitasuna.

Ongi da, bai, baina ASKI! Etxean behar eta nahi ditugu!

HAUTESKUNDEAK

Kantetan aunitzetan agertzen den bezala zaitua dugu gure herria, pastel bat edo oihal bat zapietan bezala. Horietako puska batek hauteskundeak izan zituen asteburu hontan. Lehendakaria ez da emakumezkoa. Euskalduna bai, zer-bait hobetu dute.

Maite dut hauteskundeak segitzea. Ondoko egunetakoak ere bai. Kanpaina ez. Kanpainak egia erran ez ditut batere maite. Baditut nire arrazoiak. Kanpainaren zeharkakoak maite ditut. Hau da, jende desberdinaren iritzia, apustuak, ekarpenak. Horiek maite ditut. Eta horiekin segitzen ditut kanpainak normalki.

Horien artean adibidez erantzun motzak eskatuz galderak egiten dituztenak. Adibidez: zer eragin izanen du emaitzak Ipar Euskal Herrian? Edo Nafarroan? Nolako herria irudikatzen duzu ezdakitnorekin lehendakaritzan? Zer eskatuko zenioke lehendakari berriari? Holako galdera bat leitzen dudalarik erantzuna leitu aitzin nik erantzuten dut, nik erantzunen nukeena pentsatzen dut.

Maite dut joko hori. Gero elkarrizketatuaren erantzuna leitzean orijinala, berritzailea, ausarta edo harrigarria iruditzen bazait, nire egiten dut. Ondoko baterako.

Oroitzen naiz adibidez galdera motz sorta batean Maialen Lujanbioren erantzun bat nire egin nuela. Noizbait galdetzen badidazue irla desertu baterat zer eramanen nukeen, Maialenek bezala barkua erantzunen nuke. Nik gainera, motorduna. Zer nahi duzue?! Alferra naiz urrunetik arraunean itzultzeko.

Eta hauteskondeekin egia erran ez dut erantzun orijinal, ausart edo berritzailek ikusi. Iritzi artikuluren bat agian. Baina hala ere, pentsatu dut gauzak dauden bezala fite ailegatuko zaizkigula guri ere hauteskondeak Euskal Herriko pastel zati hontarat. Eta zer eskatuko niokeen lehendakari berriari? Gauza aunitz, batere orijinalak: euskalduna izatea, murrizketak gorbatetan egitea, hizkuntza sinbolikoki ez erabiltzea, herritarragoa izatea, sosa bertze modu batez kudeatzea, Pege-naute bezalakoak gobernuan ez sartzea... Uf! Zaila gelditzea.

Lehendakari berriak aitzinekoaren modu be-rean gobernatuko duela susmatzen badut, zuzenean dimisioa eskatuko nioke.

KURDUAK

Hiru emakume kurdu hil zituzten Parisen 2012ko ilbeltzean, kurduen Informazio bulegoetan, Paris erdian. Han harrapatu zituzten erailak hiru militanteak: gazte bat, kurduen askapenerako mugimenduko fundatzaileetako bat eta kurduen ordezkarietako bat Frantzian. Hiru aktibista inportante hil dituzte, justu Turkiako gobernu eta Kurdistango langileen alderdiaren arteko el-karrizketak hasi berriak direlarik.

Hilketa hauek aipatu nahi nituen, arras deigarri egin zitzaizkidalako zenbait gauza, berria egunkarietan leitu nuelarik. Parisen hil dituzte, ez herrialde kurduetan. Paris erdi-erdian, leku jendetsuan eta gainera, egunez. Erraz egin dute, trabarik gabe. Harritu nau, hiru emakume horietatik bi polizia frantsesak kontrolpean zituela jakin dudalarik. Ez dut sobera ulertzen. Edo beharbada, sobera argi gelditu da. Kontuan hartu behar da Europa mailan Frantzian bizi direla kurdu gehien eta Europa mailan ere, Frantziak zapaltzen duela gehien herrialde kurdua.

Kurduena gurea bezalako herrialde bat da, bere nortasunarekin. Guk independenteak izan nahi dugu eta hauek ere bai. Hauek komunitateen konfederazio bat sortuz: autogestioa, batzarrak... Nik ere nahi dut. Gu bi herrialdeen menpe gauden bezala, beraiek lau herrialdeen menpe daude. Horietako bat Turkia da, eta honekin dituzte lis-kar handienak, Kurdistanen erdia Turkiaren menpe dagoelako.

Ezagunak eginen zaizkizun gauza gehiago: alderdi politikoa ilegalizatu zuten. Orain legala bada ere, beren parlamentariak eta alkateak kartzelan daude. Gurekin duten desberdintasunetako bat da beren lurraldeetan petrolio eta gas naturala dutela. Guk ez dut uste. Guk bertze zerbaite izanen dugu... ez dakit!

Deigarri egin zitzaizkidan prentsan ikusi nituen argazkiak. Batetik, emakumeena, Sakine, Fidan eta Leyla. Emakumeek garrantzi handia dute Kurdistango alderdi politiko hontan. Herri batzarretan bi lehendakari daude, beti emakumezko eta gizonezko bana. Armadaren erdia emakumezkoen osatua dela diote. Eta horregatik egin zitzaidan hain deigarria Parisko Kurduen informazio bulegoaren aitzinean protestan ziren guziak, edo ageri zirenak bederen, gizonezkoak izatea.

Bazen ikusgarria zen bertze argazki bat: Hanburgon egin zuten manifestazio jendetsua-rena. Pankarta beltz, zamarra beltz eta kopeta beltz. Gibeletik beren bandera argitsuak agertzen ziren. Hor ikusten da ez dutela gauzak aldatzeko gogoia galdu. Gauza hauek guziak elkartasuna sorrarazten didate. Identifikatua sentitzen naiz.

Berek ere erakusten dute beren elkartasuna. Ocalan askatzearen aldeko mugimenduko boze-ramailea Bilboko manifestazio baterat etorri zen. Kurdistango bertze zenbait herritarrek pankarta batekin bat egin zuten presoan aldeko aldarrika-penarekin, beraiena aldarrikatu bidenabar. Pan-karta euskaraz. Elkartasuna hartu eta eman ez. Elkartasuna horixe baita, elkarri zerbait ematea, har-eman bat. Hartu eta eman.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Ez dut sobera harreman onik teknologia berriekin, eta hala ere, nahi baino gehiago erabiltzen ditut. Teknologia berriak erraten dudalarik ordenagailua eta sakelakoa erran nahi dut. Ez naiz haratago joan, nahiko lan hauekin. Niretako horiek dira teknologia berriak. Ezjakina sentitzen naiz teknologia berriei buruzko zerbait ikusten dudalarik. Ez dut leitzen, ez dakit konprenituko ote nukeen ere. Egia erran ez dut interesik. Dakidana da, nik erabiltzen ditudanak baino aise konplikatukoak badaudela (garatukoak erranen du bertze norbaitek). Baina erran bezala, nahiko lan bi hauekin.

Biak ditut eta biak erabiltzen ditut. Ordenagailuan egunero, eta nahi baino denbora gehiago. Sakelekoa ez hainbertze, baina beti inguruan eta gero eta gehiago. Ohartu gabe hartu ditugun ohi-tura berri horiek kezkatzen naute. Gauza batzuk, nire ustez, neurtu beharko genituzke. Ohartzea izanen da kontua, eta muga batzuk paratzea.

Edukazioa deitzen dugun hori lausotzen, desagertzen ari dela iruditzen zait teknologia berrien erabilerarekin. Bere alde onak ere baditu, dudarik ez, baina horiek aunitz aditzen ditugu. Harremanetan duten eragina da kezkatzen nauena.

Lagun batekin solasean ari naiz eta halako batean telefonoak jo eta hartu dut. Horixe egiten dugu. Dena da urgentea. Ezin diogu lagunarekin dugun solasari inportantzia gehiago eman. Alfer solasa bada ere. Zergatik ez geroxeago deitu, deitu duen horri? Edo berriz ere deituko duela pentsatu? Pentsa gure ondoan dagoenaren aurpegia! Telefonoz solasteko baztertzen garelarik. Edo makurrago, solasaldi guzia hantxe egiten badugu, lagunaren aitzinean, ze aurpegi paratu ez dakiela... Txarrena da hortarat ohituratzen ari garela. Hoberena beharbada, ikasi dugula egoera bakoitzean ze aurpegi paratu.

Bertze bat, eta honekin ezin dut: solasaldi, antzerki, kantaldi, bilkura... isiltasuna, kontzentrazioa edo arreta eskatzen duen edozein egonalditan, halako batean norbaiten telefonoak jotzen duelarik. Hain gurea egin dugu telefonoa, itzaltzea atzentzen dugula. Gure parte bat da. Segur naiz baten batek gauez ere ez duela itzaltzen.

Edo karrikan barna, telefonoz solasean, ondotik pasatzen dena doi-doi agurtzen dugularik.

Eta azkena. Oraintxe jakin dut interneten konexioa izateko aukera duten antiojo batzuk asmatu dituztela. Nola jakinen dugu norbait begia klikatzen ikustean gurekin ari den edo xagua-rekin? Egokitu beharko gara bizimodu hortarat? Eginen dugu?

Ikusi duzuen bezala nire kezkarik handiena harreman kontuekin da, harremanak egiteko modu horrekin. Edo harremanik ez egiteko modu horrekin... segur aski. Ez, segur aski ez, hala da, nik ere aldatu dut gure aitzinekoen harremanak egiteko modutik. Onerako eta txarrerako, bada-
kit. Gure aitak ez zuen sekula erranen norbait gurutzatzean joaki naiz, berandu da, egonen gara lurralde miresgarriko koneju hura bezala Orain egunean hamaika aldiz erraten dugu hori, elkarrekin bi alfer solas egiteko astirik gabe.

Ba horixe, sobera denboraz solastatu naiz.
Egonen gara!

INAUTERIAK

Ez da hil ala biziko kezka, baina inauterien garapenak kezkatzen nau. Penatu erran beharko nuke, beharbada. Gure egutegi saildu hontan, beti sanez dakitzer eta santabadakitzer ospatzen dugun hontan, saildu izenik ez duen besta bakarrenetako bat da inauteria. Bere egitarauan mezarik ez duen besta bakarrenetakoa, neguko lasaitasunetik primaderako leherketarat bideratzen gaituen besta gainera.

Aunitz maite dut sentipen hori. Eta ez naiz hasiko azalpen antropologikoekin, nondik heldu den inauteria eta nola mantendu beharko genukeen ohitura hori. Gaur egun herri aunitzetan sartu den ereduak da aldatu nahiko nukeena.

Bati leitu diot disfrazatzea eta mozorrotzea ez dela gauza bera, eta hortik abiatzen da nire kezka. Brasilen disfrazatzen dira, horixe dugu inauteria eredu gaur egun: ez dakitnortaz disfrazatua karrikatara atera, jendeak ikus nagan. Ez dakitnor hori gainera eredu espainola izaten da maiz

nire inguruan (Espainiako erregea elefante ihintzian, Albako dukesa ez dakit zertan...).

Disfrazatzea ez da gaizki, nik ere maite dut, baina ez da inauteria. Ez zait sobera logikoa iruditzen inauterien garapen hortan Brasilgo eredu hori hartzea. Logikoagoa izanen zen hurbilagoa, nire ustez. Eta logikoagoa oraindik eredurik ez aldatzea, hau da gurea mantentzea. Gurea lantzea, berreskuratzea galdu bada. Egokituz, doike!

Gurean ez da edertasuna bilatzen, ez da material ezin ederragorik erabiltzen. Alderantziz. Nortasuna altxatzea du helburu, ikusezina bihurtzea, ez bertze nortasun bat azaleratzea, antzezte. Ederra da ikusezin bihurtzea. Gu ezagutarazten gaituzten ezaugarriak mozorrotzea: aurpegia tapatu, mutu ibili, eskuak ere tapatu... Eta honekin aski ez baduzue, gaur egun ezinbertzekoa dena: birziklatzea!! Mozorrotzea jasangarriagoa da, disfrazatzea baino. Materiala berrerabiltzen da. Bertze deustarako balio ez duten trapuekin eta ondoko urteetarako ere balioko dutenekin mozorrotzen gara. Ez gara zerbaitez mozorrotzen, mozorroak gara.

Heldu den urterako mozorrotzerat gonbidatzen zaituztet, ez disfrazatzerat.

HAZIEN EGUNA

Bertako hazien eguna Elizondon ospatu zen lehendabiziko urtean, harat hurbildu nintzen. Baratze ttikia izaki, ez nuen interes gogorrik haziak trukatzeko. Hasteko, ez baitut zer trukatu. Landareak eta haziak erosten ditut eta kitto. Errazena. Hala ere, beti zerbait ikasiko nuela eta, antolatu zuten mahai inguruan izan nintzen.

Mahai ingurutik atera nintzelarik buruan ez nuen sartu nintzelarik nuen gauza bera: haziak lortu behar ditut, gero trukatzeko! Haziak hautatu eta horiekin aritu. Eroste beharrik izan gabe. Menpekotasun ttiki bat kendu bizitzatik. Ez da gaizki e?

Ordu eta erdiz mahai inguruan aipatu zirenekin batean, mila gauza aipatu ziren, zeharka, eta hazien trukaketaren aferak bertze kolore bat hartu zuen. Ezinezkoa han agertu zen guzia aipatzea: bizimodua, ekonomia, hezkuntza, harremanak lurrarekin, jendartean... Baina ideiarekin bat...

Han solastatu zen Jon Harluxet Buzunari-tzeko nekazariaren esperientziatik abiatuko naiz. Bere artoa ereiten hasi zen, munduko zenbait hazi desberdinekin, berak behar zuen artoa lortu artio. Hautaketa bat eginez uzta bakoitzetik. Horrekin 35 bat esne behi bazkatzen ditu eta arto irina egiten. Eta horrekin betetzen du bere ekonomia beharra. Norbere haziaren jabe ez bagara, galdua da laborantza. Erran izan du. Menpekoak bihurtzen gaitu.

Euskal Herrian %5a bakarrik da nekazaria eta horietan ehuneko handi-handiak (Ipar EH adibidez %99a) multinazionalei erosten dizkie haziak urtero, eta horiekin beren lana egin. Produktioa ahal bezain handia izateko haziak erosten dituzte eta urtero hazi horiek erosi behar, produktioa handia izaten segitzeko. Kalitatea ez da kezka. Haziak, ongarriak, pozoiak. Denak erosten dizkiete lehiatu ahal izateko, iraun ahal izateko. Lehiatu norekin eta, multinazionalekin! Bistan da ezinezkoa dela! Eta horregatik gaur egungo nekazaritzaren gainbehera. Ezin da handi horiekin lehiatu, baina kontrakoa sinetsi dugu, zientoka behi izanda lehiatzen ahalko dugula.

Ez du zentzurik 200, 300, 500, 1000 buru izatea, ezdakitzenbat esne lortzeko multinazionalei saldu eta kate hortan kateatzeko. Badakigu zein

den esnearen prezioa. Ez zenbatean erosten dugun, baizik eta nekazariak zenbatean saltzerat behartuak dauden. Kalitatea eta merkaturatzea nolakoa den: ilogikoa! Galiziako esnea erosten dugu. Edo hemengoa Madrileraino joan eta bueltan itzultzen da guk erosteko. Edo Iruñeraino, berdin zait. Logikoagoa da bertan kalitatekoa egin, bertan aritu, eta bertan saldu-kontsumitu.

Eta kalitatearen aferarekin sobera sartu gabe, datu bat: gure soldataren %10 ematen omen dugu janariarendako gaur egun. %10 bakarrik!! Ehuneko zenbat autoarendako, bidaiatzeko, sortu ditugun behar horiek asetzeko...?

Aipatu zuten ere elikagaiekin batean, hauen bizitzaren historiala emanen baligute, erosten ditugun produktu gehienak ez ginela jatera ausartuko ere... Hurbilekoa, konfiantzazkoa eta sasoi-koa bezalakorik ez.

ESKAPATZEKO GOGOAREKIN

Ez duzue sekulan gogoa izan halako batean fuera! hemendik norabaiterat joateko? Desagertzeko? Nik batzuetan bai. Halako batean dituzun eginbeharrak zure ahalmena baino gehiago direla sentitzen duzularik: hau idatzi behar, bertze hura konpondu behar, honekin solastatu behar, haiekin bildu behar, ti-ta tarte hau pentsatu behar, bazkaria prestatu behar, baratzea laiatu behar... UF!! Hemendik alde egin nahi dut!! Sobera da!!

Gauza kuriooa. Ez dakit zergatik, baina autoan sartzean sentimendu hori baldin badut, indartzen zait. Autoa izaten da eskapatzeko gogoa indartzen didana. Telma eta Louise bezala, karreteran aitzinerat, gelditu gabe, gasoila akitu artio.... Hemendik desagertzeko aukera!!

Eta halaxe egin nuen atzo. Eginbeharrez ase nintzelarik, autoa hartu behar izan nuen eta sentimendu hori, halako batean, piztu zen. Musika paratu, eta hantxe maldan beheiti, mamu guziak, eginbehar guziak, konpromiso guziak gibelean

uzteko gogoarekin. Libertatea, nahi dudan tokirat eskapatzeko.

Baina, hau ez da pelikula bat eta segidan bigurutzeko baterat ailegatu nintzen. Hantxe, ezkerreko aldetik bizikleta bat eta eskuineko aldetik traktorea. Biak ere traankil-trankil. Askatasun sentazioa epeltzeko aproposak.

Hauek ere pasatu ziren, bertze autoren bat ere bai... eta berriz bidean!!! Musikarekin, orroka, aitzin! Diogenesen sindrome emozional batek jota bezala. Segidan berreskuratu nuen eskapatzeko gogoaren sentazio gozoa.

Baina, bigarren kolpea. Halako batean nor agertu zen nire aitzinean? Ba bai, arestiko traktore bera. Luuuzez joan behar izan nuen traktoarearen gibeletik. Eskapatzeko gogo epeltzen. Buruak geldirik eta isilik egoten ez dakienez, hantxe hasi zen gauzak bertze modu batez erakusten. Ohartu nintzen egiten ditudan gauzeekin gozaten dudala. Zerbait akitzeak, ongi egiteak, ematen didan liberazio sentazioa maite dut. Bentaja da alde onak ikusten jakitea. Batzuetan erraza ez bada ere.

Autoen bentaja bat barna husteko aukera bada, oraingo karreterek ere badute beren ben-

taja: rotondak. Rotondek pentsatzeko eta erabakiak aldatzeko ematen dizuten aukera erabili behar da. Bueltaka ibiltzen ahal zara, nahi duzun artio, erabakitzen duzun artio.

Ez nuen luzez iraun bueltaka. Pare bat eman eta segidan herrirako bidea hartu nuen. Azken finean edozein tokitarat joaten banaiz ere, marmuak, nahiak eta izaera bera nirekin etorriko dira. Han ere jendearekin egonen naiz, han ere inplikatuko naiz, han ere lan egingen dut...

Rotondari buelta pare bat eman eta kontent itzuli nintzen, ama izatera, militante izatera, maitale izatera, langile izatera, eskualduna, emakumea, atea... Pertsona izatera. Eta ti-ta tarte hau idaztera.

EGUTEGIA

Bi haur solasean aditu nituen. Maite ditut hauen solasak, beti bada zerbait interesgarria. Hontakoan batak bertzeari protesta egin zion: kristauak ez direnek ezin dute besta izan Aste Sainduan. Besta kristaua da eta ez dute ospatzen ahal. Kristaua ez zen neskatikoak ederki erantzun zion: Konforme, Aste Saindua ez dut ospatuko eta hautatuko ditut nik nire bestak.

Orduan hasi zitzaidan burua lanean, nik ere nola egingen nukeen pentsatzen. Aukera izan behar besta egunak antolatzeke eta proposamen bat baino gehiago etortzen zaizkit bururat.

Jendearen arteko lotura indartzeko balio beharko lukete besta horietako batzuk, herrietako bestak adibidez. Lehentasuna izan beharko luke jendeak beren lantokietan beren herriko bestetan libre hartzeko. Inportantea da herritar guziak presente egotea herriko bestetako ekitaldi guzietan. Hortarako egun pare batekin askiko litza-teke.

Bertzetik, aldarrikapenak egiteko egunak. Aldarrikapenak edo jendartea aldatu beharreko arlo bakoitzeko egun bat, gogoratzeko, horren aitzakiarekin gaia lantzeko, kaleratzeko... aldarrikapena egia bihurtu artio. Adibidez, erraz bat: maiatzaren 1a. Hau gaurgero ospatzen dugu, beraz aldaketarik ez. Bertze bat martxoaren 8a. Besta eguna izendatuko nuke.

Inauteriak. Inauteriak Besta Nazional izendatuko nituzke dudarik gabe: paganoa den besta bakarra mantendu beharko dugu ba!

Aste Sainduaren partez joan den egunean lagun batek proposatu zuena: korrika eguna. Euskalduntzen segitu behar dugunez, eta korrika pasatze hutsak ez duenez ziurtatzen euskaldunduago gaudenik... herriko besta izatea, korrika herritik pasatzen den egun berean. Kasu hontan eskualde osoan besta. Eskualdeko besta. Igandearekin suertatzen bada, besta eguna biharamuna, ospakizunaren bestondoa kentzeko. Eta ondorioak...

Pilarika eguna dudarik gabe guardia zibilei utziko nieke. Suerte pixka batekin joaten badira, ez dugu bertzeen ospakizunak ere aguantatu beharko. Konstituzioaren egunarekin gauza bera. Hauen partez, natura omentzeko, aldarrikatzeko

egunen bat: solstizioak adibidez. Aitzinekoek ere ospatzen zuten, ez da gaizki errekueratzea. Gehien bat arrotzak egiten zaizkigun besta horien partez izaki. Naturari zor diogu.

Aberri eguna. Ongi, nahi baduzue ospatuko dugu. Baina independentzia lortzen dugun egunean, ez gara gehiago abertzaleak izanen, beraz, bertze zerbait ospatuko dugu. Independentzia lortu dugula, doike. Hortarako egun klabe bat hautatu eta listo.

Eta zertaz ez, aldarrikatzen kostatzen zaizkigun gauzak aldarrikatzea. Maitasuna, adibidez. Maitasunaren eguna, baina ez Sanbalentin gisako zerbait, ez. Herritarren artekoa, maitatzera bulztatu jendea... batzuetan errespetua deitzen dugun hori.

Hasi eta zientoka gai bururatzen zaizkit eta zientoka modu antolatzeke, egutegia bestaz gorritzeko. Beti ere, kontuan hartuz bestak garaia-aren arabera ospatu behar direla, aldakorak direla eta herriaren kezkek, nahiak, pozak, tristuren... arabera aldatuko dugula egutegia.

ZIENTZIA FIKZIOA

Zientzia fikzioa maite dut, bere neurrian! Zientzia fikzioa errealitate bihurtzea ez dut batere maite. Maite ditut etorkizuna irudikatzen, asmatzen duten pelikulak, liburuak... Edo iragana eta oraina asmatzen dutenak. Ez dakit ongi imajinario parrastarengatik den edo errealitatearekin duten loturarengatik. Errealitateetik hartutako gauzekin jostatzen dute, eta hortik abiatuz asmatzen. Kuriosoa dena da nola asmatzen dituzten gauza gehienak, gero egia bihurtzen diren. Edo nola asmakizun hutsa dela uste duguna, aspalditik martxan den bizi garen errealitate hontan.

Marra lausoa da errealitate eta fikzioaren artekoa, ohartu zarete noizbait? Super agente 86 gogoratzen duzue? Harek zapatofonoa zuen, bertze defentsa tramankuluen artean. Nork ez du gaur zapatofonorik? Edo polizia pelikuletan hortxe agertzen dira CIAko ordenagailu batetik ezdakit-nor segika dutela, bizkarrean duen tatuajea eta dena ikusten ahal diotela! Ba, zoritxarrez horrek fikzioa izateari aspaldi utzi zion. Galdegin poli-

ziari. Gaur egun edozein gurasok egiten ahal du bere seme alaben segizioa, haurrak zapatofonoa baldin badu, adibidez. Hori guraso batek egiten badu, zer ez du eginen poliziak!! Kontrolaren mundu hori gaurgero ez da fikzioa. Pena! Politago zen fikzioa zelarik, imajinazioa bakarrik. Eta lasaiagoa ere bai.

Eta segi! Fahrenheit 451 nobela. Liburuak izatea debekatua zen eta suhiltzaileek erretzen zituzten denak. Ordurako hori ez zen fikzioa, han eta hemen erreak zituzten liburuak, baina XXI. mende moderno hontan zuri eta beltzeko mende-etako giroa dugu, fikzioan gertatzen den bezala. Makina batean sartu eta hiru mende gibelagoko munduan agertzen gara: egunkariak hetsi, liburu batzuk publikatzea ez utzi, bertze batzuk debekatu... Batzuetan zientzia fikziozko pelikula batean bizi naizela ematen du. Polita litzateke, baina ez zait gustatzen errealitatea delarik.

Zenbait jende harritzen da. Edo badakite eta ez dute sinesten. Edo ez dute jakin nahi. Edo ukatzen dute. Fikziozko nobela bat kontatzen ari naizela uste dute. Adibidez, manifestazioa egiteko baimena eskatu behar izaten dugularik. Edo manifestazioa debekatzea, edo eginez gero manifestari baino polizia gehiago izatea. Edo bigarren

aldiz baimena eskatu behar izatea, lema neutroago batean: eskubideak denendako eta listo!

Eta zientzia fikzioa izan zitekeen ere Ernestori egin zioten epaiketa. Gaurgero pasatu da, baina bere zientzia fikziozko pelikulan segitu behar izan zuen zenbait egunez. Ez dakit kapitulu gehiago izanen ote duen serie honek, baina Ernestorekin ez bada, bertze norbait protagonista gisa ematen duenez bai. Zoritxarrez.

SUTAN PARATZEN NAU

Musikari bati aditu nion internetek alferrago egiten gaituela eta sormena ergeltzen. Arrazoia duela pentsatu nuen. Interneten dena dugu, dena egina dago, dena bilatzen ahal dugu eta geronek zerbait sortzea baldintzatzen du. Horri gehitzen badiogu ederki sinestarazi digutela zerbait berria sortzeko kapazak ez garela, hortxe dugu emaitza: gero eta ordu gehiago interneten, gure burua ergeltzen.

Baina, zer nahi duzue! Batzuetan tentazioari kasu egiten diot eta interneten ibiltzen naiz han eta hemen jendeak erraten-idazten edo sortzen duena leitzen, ikusten... Gehienetan denborapasa ergel gisa izaten dut, lelo bera beti buruan: beti zerbait ikasiko dut. Aunitzetan denbora eta pazientzia alferrik galdu dudan sentazioa izaten dut. Aunitzetan. Baina batzuetan altxorren bat agertzen da, eta, egia erranda, halakotan ongi pasatzen dut.

Goio Arana diseinatzaile, kazetari, komunikazio-irakasleak idatzitakoa agertu zitzaidan in-

ternetaren zurrunbiloan. Sartu eta handik bi minutura. Sutan paratzen duten gauzen zerrenda egina zuen. Zenbatetan ez ote dugun erran horixe da sutan gehien paratzen nauena. Beti gauza desberdinak, aldakorra. Zerrenda hori ere, aldakorra omen du artistak, egoeraren arabera

Leituz bezala zenbaitzuetan berarekin bat egiten nuen, zalantzarik egin gabe:

BAT: Irriak eragiteko, etengabe, gaztelerazko umorera jotzen duten aktoreak. Ados. Aktorea izan gabe gauza bera egiten duen jendeak ere bai.

BI: Futbolzale amorratuak, ehiztariak eta zezketazaleak (denak poltsa berean). Ni ere bai.

HIRU: Gaztelera hutsean twiteatzen duten euskaldunak. Konforme, idazten, solastatzen, twiteatzen, nahi duzuna! Baina sutan paratzen naute.

LAU: Munilla. Nik, sentitzen dut, baina goi mailako klero osoa sartuko nuke. Eta gainbeherako zerrendan gutti libratuko ziren.

BORTZ: Pilotarien material aukeraketaren gaineko "albisteak". Ez dakit sekulan leitu ote dudan holakorik, baina segidan bururat etorri zitzaidan niri neguan elurra egin dueneko albisteak

sutan paratzen nauela. Egunkariek notizia horrekin zigortzen gaituzte urtero.

Zerrenda luzexeago zen, baina segidan animatzen hasi eta nire zerrenda egin nuen, aldakorra nirea ere, momentu, egun eta konpainiaren araberakoa. Egun hauetan adibidez, sutan paratzen nau baloreen hiztegia perbertitzeak. Hau da, baloreak adierazten duten hitzak nolana eta nonahi erabiltzeak: Rajoyk askatasuna erabiltzen duelarik adibidez. Edo errespetua, ez iraintzeari deitzen diotelarik. Nahiz eta errespetu guttiko ekintzak egin. Maitasuna, berdintasuna, demokrazia... horiek guziak.

Inpuntualitateak ere sutzen nau. Eta sutzen nau Baztango ohitura dela erraten delarik (horabaztan delako hori). Eta horren harira, estereotipoek ere sutan paratzen naute: sutan paratzen nau emakumezkoak edo euskaldunak edo gizonzkoak ezdakitolakoak garela/direla erraten dutelarik.

Eta sutan paratzen nau ere ordu aunitz interneten eta ordenagailu aitzinean jarrita pasatzeak. Hortaz nire zerrenda sortzea eguneko bigarren altxorra izan zen. Ordenagailua itzali eta bueltaxka bat ematerat joan bainintzen, eguraldiaz gozatzerat.

PALESTINA

Euskal Herria-Palestina egunaren harirat Palestina Baztanen bueltaka izan genuen zenbait asteetan. Ilusio handia egiten didate holako harremanek, elkar-ezagutzak, hurbiletik jakiteak... Baina egia erran tristura ere sentitzen dut hango errealitatea oraindik gehiago ezagutzean. Edo hurbilagozik ezagutzean. Ez da gauza bera irudiak ikustea, aditzea edo irakurtzea. Norbaitek kontatzeak indar gehiago du.

Roadmap to apartheid dokumentalarekin hasi nintzen. Hor Afrikan emandako apartheidak gogorat ekartzen zuten eta aski esanguratsuak diren irudien konparazioarekin eta azalpenekin argi ikusten da Israelek ze lana egin duen eta egiten duen palestinarrak baztertzeko, baliogabetzeko... munduaren aitzinean.

Ondotik, presoei buruzko solasaldian izan nintzen. Hor ere gai gogorra. Hemengoa astakeria iruditzen bazaigu, han dena handiagoa eta salbaiagoa da. Hemen tortura moztortzen dute, tapatzen, ukatzen, agerikoa bada ere. Han ez, han

legala da. Hemen 700 preso, han milaka. Hemen nolanahi atxilotu eta kartzelaratu. Han nolanahi, nornaahi, nonahi. Haurrak barne (200 haur preso pasa direla uste dut erran zutela). Triste uzten zaituen solasaldi horietakoa.

James Petras eta Adel Abou Salemen solasaldi motza, ikaragarria bazen ere, ez zen lagungarria izan. Tristura hori kenduko zidan zerbait behar nuen. Pailasozalea ez naizenez, ez nintzen Porrotx ikusterat joan, eta egia erran momentu hontan damu naiz. Seguru ikuspegi baikorragoa izanen zela. Beti bada gauzak umorez eta alai hartzeko aukeraren bat, egoera gogorrenetan ere.

Eta igandean uste dut konpentsatu nuela aitzineko tristura-biltze hori. Euskal Herria-Palestina eguna antolatu dela ikuste hutsak ematen du indar hori. Palestinak gure herriarekin duen parekotasunak alde gogorra badu ere, bere alde gozoa ere badu: gurea dena eskatzeko, aldarrikatzeko, horren alde borroka egiteko dugun indar bera. Komunean dugu zerbait maite dugula, eta maite dugun horren alde prest gaudela aitzin egiteko, aukerak bilatuz, ezker-eskuin arituz, bazuetan urdin, bertzetan beltz.

EH-Palestina egunak indartu zituen alde positibo horiek: Adel Abou Salemen hitzekin gel-

ditu nintzen. Erran zuen egoera latz hauetan zerbait nahi izateak, horregatik borrokatu nahi izateak, bertze herrialde batzuk ere berdin egiten dutela jakiteak, indarra ematen duela.

Eta gehien hunkitu ninduen: inon hartu duen elkartasun eta maitasun handiena hartu omen du Euskal Herrian egun hauetan. Ez naute triste utzi aste hontako euskal herritar eta palestinarrek.

Etixeratu eta Ondarruko herri harresiaren irudiak ikusten aritu nintzen. Elkartasuna bor-borka. Han ziren guziak maite duten zerbaiten alde erresistentzia egiteko prest ziren. Ez kartzelarat joaki zen lagun hori maite zutelakoz bakarrik. Lagun hori kartzelarat eramaki zuenarengatik ziren han: herri berri bat nahi izatea, egoera aldatu nahi izatea... Zerrenda luze hori, askatasunean laburtuko genuena.

Gisa hortako elkartasun har-emanaldi handi bat izan da aste hontan Baztanen eta hori esker-tzekoa da. Herri harresia ez, baina maitasun eta elkartasun hori guzia erakusteko aukera izan dugu. Egia erran harresi hori egiteko atean izan gara Baztanen, Ernestok bide bereko jarraipena, atxiloketa, espainiaratzea, epaiketa eta hori guzia izan baitu. Betegarria da elkartasuna, baina eman

behar ez izatea egia erran, lasaigarria. Bi gauza buruan, bihotzean: Palestinarrei beren bisita eskertzea eta Ernestori berriz ere ongi etorria ematea.

DEPORTAZIOA

Errefuxiatuen kolektiboak ekitaldi bat egin zuen Miarritzen 2013ko ereiaroan, hor daudela gogoratzeko eta iheslariek gatazka politikoaren konponbidean parte hartu behar dutela aldarrikatzeko. Beraien ekarpena kontuan hartu gabe gatazka ezin dela gainditu azpimarratu zuten.

Hori alde batetik. Bertzetik, memoria landu nahi dute. Hau da, historia idatzi. Iheslarien historia ez baita beraiekin hasi: gerra karlistak, gerra zibila... Historia idatzi, ondoko belaunaldiek ez dezatela gatazka bizi beharrik izan. Halaxe diote.

Ze gauza!! Denok parte hartu nahi dugu gatazka konponketan, denok akitu nahi dugu gatazkarekin. Konponketa hortan parte hartu nahi ez duten bakarrak estatuak dira, Espainiakoa eta Frantziakoa. Zergatik ote? Beldurra egia eta injustiziak agerian utziko dituelako. Ez dut dudarik egiten.

Presoen gaia nahiko ezaguna dugu (hala uste dut); aunitzei tokatu zaie hurbilekoren bat. Familiakoa ez bada, laguna, ikaskide, lankide, lagun baten laguna, barridea... Errefuxiatuena gutxiago ezagutzen dugu. Kartzelako bizitzaz aunitz idatzi bada ere, errefuxiatuei buruz gutti, aise guttiago. Sekretupean dago oraindik. Eta hauena baino guttiago ezagutzen duguna, deportatuen bizitza da. Deportatuen bizitzari buruz berri gutti dugu, arras gutti. Kasik deus ez.

Zer den badakigu, justu-justu, baina bizimoduari buruz hurbilekoek bakarrik kontatzen ahal digute. Ana Petralandaren hitzek argi uzten dute: Ahaztua izan dugu deportazioa, aunitzetan aipatu ere ez da egiten eta badut samin hori. Deportatu baten bikotea da.

Frantziak munduan barna barreiatu zituen iheslariak Espainiak hala eskatuta, 1980ko hamarkadaren hasmentan. Erailtzen ibilki zen GAL taldeaz babesteko, teoriarik. Gaur egun zigortzeko. Afera da orain Frantziak ez dituela hauek Euskal Herriratzeko bitartekorik paratu nahi. Ez dute itzultzeko aukerarik. Ez ziren Miarritzen agertu.

Cuba, Venezuela, Uruguay, São Tomé, Cabo Verde... Urrun egiazki. Tartean, gehiago urrun-tzen duen itsasoa. Normalki ez dute nortasun

agiririk. Agiririk gabe ezin lanik egin, etxe bat alokatu, mediku zerbitzua izan... Konta ezazue zenbatetan eman behar izaten duzuen zuen agiri-
ren bat. Ezin dute intsumisiorik egin, Euskal He-
rrian agertu protesta gisa, errefuxiatuek Baio-
nako katedralean egin zuten bezala. Deportatu
bat ezin da dagoen kontinentetik atera. Bakarrik
dago, bere mundutik urrun. Kartzelan bezalatsu,
bai. Kartzelaren helburu bera du deportazioak:
isolatu, babesik gabe familiarengandik urrun utzi.
Kasu hontan urrunago.

Frantziar eta Espainiar estatuen erabakien
menpe dira. Babesgabetasun juridiko osoarekin.
Euskal deportatuen egoera ez da sekula epaiketa
baten ondorio izan. Beren kondenak amaigabeak
dira, ez baitakite beraien egoera noiz akituko den.
Sagarraren denbora dokumentala ikusterat anima-
tzen zaituztet, egoera hurbilagotik ezagutzeko.

BESTAZ BESTA

Herrietako bestak primaderarekin hasten dira, neguaren bezperan akitzeko. Herriz herri eta aldizkatuz hor ibiltzen gara astebururo herriren batean bestak ospatzen. Ez dakit zergatik sortuko zen ohitura hori, baina iruditzen zait herrietarrak elkartzeko modu bat dela, giroa konpartitzeko, eguneroko zereginak alde batera utzi eta elkarrekin egoteko eta bertze herrietakoak hortarat gonbidatzeko. Atsedeen mota bat, deskonektatzeko aukera bat. Zentzudunak iruditzen zaizkit herrietako bestak.

Ospatzeko ohitura hori sortu zenetik gaur artio aunitz aldatu izanen da segur aski. Baina mantentzen da. Ohitura batzuk galdu dira, bertze batzuk berri, bertze berri batzuk sortu. Holaxe ematen da garapena, eta inportanteena dena: denendako bestak izatea lortzen ari da.

Eta bai! Mutil dantzen gaia agertzen zaigu hemen. Mutil dantzak besta horietako parte bat direlako. Deus gehiago, eta hori dena. Luze iza-

ten ahal da, baina laburtzen saiatuko naiz. Tarte honek bere ti-ta izena galdu ez dezan.

Mutil dantzekin ez dakit ongi zer den pasatzen dena, baina zenbaitzuk arazoak dituzte emakumeak dantzatzean. Dantzaren izenarena gainditua da gaurgero, baina gogoratuko dizuet, balekabale: Baztango Mutil dantzak. Baztango horrekin hasten ahal gara. Ez dut inoiz norbait dantzatik ateratzen ikusi, baztandarra ez den norbait sartzean. Emakumezkoa ez bada segurik. Baina ez kanpotarra izateagatik. Mutil horri begiratzen diogu emakumeak ez sartzeko errateko orduan. Konforme! Emakumeak ez dira mutilak. Haurrak ere ez, zaharrak ere ez, ezkonduak ere ez. Haur bat sartzen delarik dantza gelditzen du norbaitek?

Mutil hitzak morroi erran nahi duela erran zidan behin batek. Eta emakumeak ez dira lanetako mutilak izaten, neskatoak baizik. Baina medikuak ere ez, ez dira mutilak. Enpresariak ere ez, harginak ere ez, harakinak ere ez, zurginak ere ez, bankariak ere ez... Ederki, izenarena kitatua, ez?

Lehen dantzatzen zen bezala dantzatzea nahi omen dute. Emakumeek lehen ez zuten dantzatzen, beraz, gaur ere ez. Lehen? Noiz lehen?

Noizko lehen hartuko dugu? Alkateak dantzatzen zuenekoa? Eta alkatea emakumezkoa bada? Edo egun hortan eri bada? Mutil dantzarik ez? Edo lehen espartinekin dantzatzen zutenekoa? Edo bonetarekin dantzatzen zutenekoa? Edo bonetarik gabe? Lehen hori definitzea ezinezkoa da. Atzo ere lehen zen, duela 20 urte lehenbiziko aldiz sartu nintzelarik Mutil dantza bat dantzatzerat ere lehen da. Eta hala balitz ere, zertaz ez dugu jarrera bera emakumeak agertzen diren eremu guzietan? Lehen emakumeek ez zuten bozkatzen! Lehen emakumeak ez ziren unibertsi-tateetarat joaten! Lehen emakumeak ez ziren zikiro-jateetarat joaten! Ez zuten autorik gidatzen! Lehen emakumeak ez ziren inautetan eskean ibiltzen! Lehen emakumeak... Lehen hori ere kitatua, ez?

Sentimendua omen da. Hori ezin omen dugu ulertu, Mutil dantzak gizonetzkoekin bakarrik dantzatzean sentitzen den sentimendu hori. Hori erraten dutenek dantzatzen omen dute ezkontzetan, bazkalondo pribatu batean edo holakoetan emakumezkoekin. Hor ez dago arazorik, baina plazan bai. Leku publikoan, jendea begira dagoe-larik, ez! Inportanteak sentitzen garelakoz jende guzia guri begira? Boteretsuak sentitzen garelakoz? Edo dantzak eskatzen duen kontzentrazioa lortzean sentitzen den hori da? Edo bertzeren bat

beharbada? Berdin zait. Afera da sentimendu hori konpartitu nahi ez izatea. Gustuko sentimendu hori edozeinekin, baina emakumezkoarekin ez!?

Konpartitu nahi ez baduzu, saiatu. Dantzatu egunen batean zure aitzinean, gibelean edo hamar dantzari haratago dagoena nor den jakin gabe, kasurik egin gabe. Egiazki sentimenduak ez du zertan aldatu. Ez bada emakumezkoak berdin ikusten ez dituzula. Baina hemen eskubideez solastatu beharko ginateke. Eta nire adibideak homofobia, arrazakeria eta holakoak izanen lirateke.

Uste dut aski dela. Bestetako bertze ekitaldi bat da. Zuretako inportantea bada, egin pausu hori eta dantzatu, gozatu, konpartitu. Herrietako bestetako programazioko bertze edozein ekitaldi bezala, gozatzeko delakoz, elkarrekin aritzeko, deskonektatzeko, edo konektatzeko. Herriko inor bazter batean utzi gabe.

MERENGE TARTA

Barcina tartarekin goxatzen saiatu zirenen epaiketaren berri leitu nuen gertatu zelarik. Oroituko zarete: Barcina Okzitaniako Tolosan zen jardunaldi batzuetan. Halako batean ttattardun jende koadrila bat hurbildu zen, dotore-dotore; ez bat eta ez bi, hiru tartarekin eman zioten buruan. Ezin irribarrea saihestu. Iringarria. Nik ere gus-tura eginen nuke... Iringarria ez dena da ondolik etorri zen epaiketa.

Abiadura Handiko Trenaren kontrako ekin-tzaileak ziren, indarkeriarik gabeko ekintza batekin eta zentzuzko aldarrikapenarekin. Badakizue Nafarroan berean 60 kilometroko AHT eginen dutela, loturarik ez duena? Jakinen duzue Osasunbidean gastatuko dena baino gehiago gastatuko dutela Nafarroan AHT hori egiteko? Badakizue AHTren gastuak buruan sartzen ez zaizkigun kopurukoak direla? 4.790 euro kalkulatu dituzte pertsonako. Uste duzue Nafarroan hau dena bulkatzen eta babesten ari den Yolanda Barcinak ez zituela tartak merezi?

Horrelako ekintza aunitz izan ditugu gure herrian. Maite dut gogoratzea. Aldarrikatzeko modu polita delakoz. Aldarrikatu beharreko horiek haserrarazten banaute ere: presoan egoera, demokrazia eza, zentzugabeko eraikuntza zigan-teak...

Ekintza sinbolikoak dira, baina oihartzun handikoak: Demoek Pauetik Euskal Herriko ordezkarienak izan beharko liratekeen hogeita bat katadera ebatsi zituztelarik. Ederra!; Atletismoko mundialean Giralduaren presoan aldeko aldarrikapena mundu guztiak telebistan ikusi zuelarik; Itoizko kableak moztu zituztelarik. Edo azkena: alimaleko ikurrina agertu zutelarik Sanferminetako txupinazoan. AHTren kilometroak baino irribarre gehiago sorrarazten dute ekintza hauek.

Tartaren afera hau ere horretan gelditzen ahal zen, protesta, aldarrikapen eta abileziaren lekuko. Haserre ttiki bat eman eta kitto! Baina Barcinak ez du batere umorerik. Onik ez seguru-enik. Eta lehendakari ukiezinaren erreakzioak ere, ez du batere graziarik. Halako malaletxea sortu zitzaion, alimaleko mobilizazioa muntatu zuela hauek atxilotzeko. Hendaiarat ailegatzean han zen polizia, munduko gaizkilerik handien gisan atxilotzeko. Merengezko tarta bat botatzeagatik!! Hiru, ados, baina tartak! Frantziako

merengea gogorra dela erraterat ausartu zen gure lehendakari anderea. Ondorioz: borzna urteko kartzela zigorra eskatzen zieten tarta horiek botatzeagatik. Bortz urte kartzelan!!

Bilatzen aritu naiz eta politikari eta agintarien munduan horrelako aunitz ikusi izan dira: Tartak aurpegian Nicolas Sarkozyri (Hollande bere kontrakoari irina bakarrik bota zioten); Bill Gates, Microsoft enpresako sortzaileari; Rupert Murdoch magnateari; NBEko enbaxadorea zen Patrick Moynihan arrazistari... Aunitz dira!! Arrautzak ere bai: Alberto Fabra, David Cameron. Arras ezaguna egin zen Bushi botatako zapata...

Politikari ustelen historian sartzen den ekin-tza bat da. Onartu, Yolanda, zure politikaren ondorioa da. Aunitzetan egin da. Denak erridikulizatzeke eginak. Azken finean ze itxura du horrelako jende inportantak pailazo txarraren pape-rean? Irrigarria.

Nafarroako ondoko agintariak ez dakit tartaren zaporea probatu beharko ote duen edo ez, baina umore gehixeago izateko eta politikari hobe izateko, ez du lan handirik izanen. Aldaketa erraz izanen da onerako.

LOMCE

2013ko ikasturtearen hasmentan hezkuntza lege berri bat onartzeko lehendabiziko pausua eman zuten. Hezkuntza erreforma bat. Bertze hezkuntza erreforma bat. Ohartuko zineten, ez da hala? Espainiako agintean alderdi berri bat hasten den bakoitzean, hezkuntza erreforma berri bat egiten da: LOE, LOCE, LOGSE... orain LOMCE. 40 urtetan hamaika erreforma!

Baina, dena ziklikoa omen da eta hasmentarat itzuli gara, horra! Hau da, agintariak bozken bidez hautatzen ez ziren garaietararat. Batzuk ezagutuko zenuten lasai hil zen agintari bibotedun haren garaiko eskola. Bertze batzuk aitatxi-amatxik edo aita-amek kontatua ezagutzen dugu. Franko beraren argazkia eskolan, Franko beraren arima hezkuntza sisteman. Ba gurasoen kontaktuzunak etortzen zaizkit bururat, lege honen berrikuntzak aditzen ditudalarik.

Aitak kontatzen zidan liburu bakarra zutela eskolako. Han zela ikasi beharreko guzia. Ba orain halatsu. Gauza bakarra denendako. Estatu

espainiar guzian gauza bera ikasiko dute ikasle guziek, beren kultura, ingurua, aurreikasketak batere kontuan hartu gabe. Una y gande.

Izebak ere kontatzen zidan nola kanpotik etorritako maisu erdaldun bibotedun bat zuten, eta nola alde batean neskak eta bertzean mutikoak paratzen zituen, mezan bezala. Ez dut erranen gizarte sexista horren ondorioa denik bakkarik, baina eragin zuzena bai, dudarik ez. Handia. Ba orain diru laguntza izanen dute hori egingen duten eskolek, neskak alde baterat eta mutikoak bertzerat. Emakume eta gizonen arteko elkarbizitza nola emanen da naturalki, kontrakoan hezten bagaituzte?

Osabak ere kontatzen zidan eskola pribatuetan ikasten zutenek zituztela aukerak. Sosa zuenak ikasten zuen. Ba orain horixe da heldu zai-guna, unibertsitatean gaurgero dagoena: sosdu-nek izanen dute kalitatezko hezkuntza. Badakigu jakitea, eskolatzea, zeinen inportantea den. Bote-rean daudenek ere ederki dakite: analfabetoak ez dio batere trabarik egingen. Lege honek ez die eraginen eskola pribatu edo kontzertatuei, beraz, kalitateko hezkuntza, ikastetxea pagatzeko aukera duenarendako.

Kontu gehiago ditu lege honek, kalitatea bati-
tere bermatzen ez dutenak: Ikastetxeek autono-
mia galduko dute, menpekoak izanen dira; zuzen-
daria izanen da jaun eta jabe; ikastetxeen arteko
lehia izanen da eta Ikasleen artekoa handiagoa;
merkatu mundurako prestatuko dituzte, horreta-
rako bakarrik; ebaluazioari begira heziko dituzte,
ez ikaslearen onbeharrei; erlijio katolikoak inda-
rra hartuko du, ebaluazioan eragina izanen du...
Eta euskara? Euskara bigarren mailakoa izatetik
hirugarren mailakoa izaterat pasatu nahi dute...

Suertez PP ez bertzerik, gainerako alderdi
politikoak kontra daude, baina Wert Espainiako
hezkuntza ministroak, ikasleak, eskolak, gura-
soak... Espainolizatu nahi omen ditu. Hala erran
du. Beretako hori da kezkarik handiena, hori da
hezkuntzarako nahi duena. Espainolizatzea. Ez
da kasualitatea lege honen onarpenaren lehenda-
biziko pausua hispanitatearen egunaren inguruan
egitea.

ORDU ALDAKETA

Urtean bi aldiz ordu aldaketa izaten dugu. Alfer solaserako aukera ematen duen horietako bat da ordu aldaketa. Irringarria da, nahiago dut eguraldiari buruzko alfer solasa baino, ordu aldaketari buruzkoa:

-Atzo zer ordutan etorri zinen ferietatik?

-4etan.

-Atzoko 4ak edo gaurko 4ak?

Edo

-Buf! hau logalea! Doike! Atzoko 12ak dira!!

Urtero bi aldiz holako solasak bizpahiru egunez. Alfer solasa bai, baino ordu aldaketak, egia erran, ez ditut batere maite. Alfer aldarrikapenetako bat dut honekin: ordu aldaketarik ez!! Eta horra non aurten hori aztertuko dutela erran duten. Hau da, Espainiak erran du estatu osoan eta urte osoan oraingo ordutegi honekin ibiliko

garela. Edo hori egin edo ez erabakiko duela. Hortan ari dira, uste dut.

Bai, independenteak garelarik guk erabakiko dugu, baina momentuz hortan ere horien menpe. Kontent gelditu nintzen aditu nuelarik, baina segituan ohartarazi ninduten Euskal Herrian bi ordutegi desberdin izanen ditugula: Arizkunen bat eta Baigorri bertzeko bat; Zugarramurdi bat eta Saran bertzeko bat; Lesakan bat eta Hendaian bertzeko bat... Horra! Administrazioaren mugarekin aski ez, gure buruan ditugun mugekin aski ez, eta orain ordutegiaren muga! Zer ordutan izanen dira Baionako manifestak? 4etan. Hango 4ak edo hemengo 4ak? Eta kontzertuak Baigorri? Hango 10ak edo hemengo 10ak. Buf! Hau nahas-keria!!

Hor kutsu politikoa ikusi nuen. Bertze ziztada bat, bereizteko bertze arrazoi bat. Ez gaituzte bakean utziko!! Baina horra non deskubritu nuen, Frankismoko bertze arrasto bat dela ordutegi aldaketaren afera hau. Bigarren Mundu Gerran egin omen zen, Alemaniak Frantziarekin baitan bere ordutegia inbaditu zuelarik. Horren ondorioz, eta Frankok Hitlerrekin bat egin nahi izan zuelako, Espainiak ere aldatu zuen ordutegia. Beraz, batengatik eta bertzearengatik, hartan Euskal Herri osoak aldatu behar izan zuen ordu-

tegia. Baina Frankok aldatu zuen! Banekien nire afer-aldarrikapenak bazuela zentzu zerbait. Orain Frankok egindako zerbait urratuko dute!? Hori ezustekoa!! Egingen ote dute!?

Frankoren arrastoa kentzeaz gain, neguko ordutegia egokiagoa ikusten dut: eguzkiko ordutegitik hurbilago; gure gorputzaren funtzionamenduarekin egokiago; gure erloju biologikoarekin sinkronizatuago. Nahiz eta, egia erran, arratsaldea motz gelditzen zaidan.

Afera da aldarrikapen bat guttiago izanen nuela uste nuela, baina ez, aldarrikapenak aldatzen dira, ez desagertzen. Orain ordu aldaketarik ez aldarrikapena utzi eta Iparraldean ordutegi biologikoa orain!! aldarrikatu beharko dut. Edo berri ere, hoberena independentzia aldarrikatzea eta orduan ordutegia gurera moldatzea? Zuzenena.

BERRIZ LIBRE

Irakurtzen lasai zela, atea irekitzen zutela ikusi zuen eta kanporat zoaz erran zioten. Bertze egunen batean balitz ez luke sinetsiko, arraroa eginen litzaioke, baina bazekien bere izena aipatuko zutela Audientzia Nazionalean, eta libre ateratzeko aukera zuela. Sei urte lehenago akitu zuen kondena, baina norbaitek ez libratzea erabaki zuen. Hontakoan bai: zakuetan liburuak, pinturak, paperak, kartak, argazkiak... bere bizitza bildu eta kanporat atera zen.

Han ez zuen autobus bat bete-jende esperoan. Lehendabiziko debekua. Baina bera kontent. Arraro, baina kontent. Bidaia luzea egin zuen eta azkenean bai, azkenean herrirat ailegatu zen. Han ere jende aunitzik ez: familiakoak (ez denak), lagun bat (ez denak) eta politikariren bat beharbada (hemen ere ez denak). Ongietorria ere debekatua zuen. Lagun batek errana zion euskal presoek kondena berezia zela: ezdakitzenbat urte, egun bat eta omenaldi bat. Omenaldia kondena-
ren barnean sartzen zela eta sufritu zuela. Berak

ez du izanen, ez publikoa segurik. Eta hemen bertze debeku bat. Bakarka eta momentuoro, maite dutela, kontent direla, berarekin bat egiten dutela erran zioten. Etengabeko omenaldi xumeez betetako ongietorria. Bera kontent.

Ettxerat hurbildu zen. Semearen etxerat, berak etxerik ez baitu. Ez da oroitzen izan ote zuen ere. Edo aunitz beharbada...

Eta hasi da martxa... Ikasi beharko ditu denok ikasi behar izan ditugun gauzak, baina denak kolpez. Eta berrikasi beharko ditu urteetan atzendu dituenak. Sakelakoa erabiltzen ikasi beharko du, adibidez. Kartzelan sartu zelarik hainbertze maite zituen zientzia fikziozko pelikuletan bakarrik agertzen zirenak, erabiltzen ikasi beharko du: ordenadorea, internet...

Baina horiek guziak zozokeriak dira. Fite ikasiko du. Makurrago da ikasi beharko duela zerumuga begiratzen, adibidez, bere begiek ohitura galdu baitute; harrigarria eginen zaio atea irekitzen ere ikasi beharko duela ohartzea. Azkeneko 26 urteotan sekulan ez du aterik ireki, funtzionarioek ireki eta hesten baitzituzten, egunean bi aldiz urterik hoberenetan: bat dutxarako, bertzea eguneko paseorako. Argiarekin gauza bera, argiak itzaltzen ikasi beharko du. Piztu eta itzal-

tzen zuen gauza bakarra bere flexoa zen. Gelako argia ez. Komunarena ere ez. Jangelakoa ere ez.

10 m² baina handiagoko espazioan ibiltzen berrikasi beharko du. Beti aitzin eginez kilometroak eta kilometroak egiten ahal dituela ere bai. Arraro eginen zaio, baina kontent egonen da. Oroituko da oraindik ikasteko eta berrikasteko aukerarik ez duten lagunak kartzelan gelditu direla. Eta hemen ez, ez da kontent izanen. Tristatuko da.

Zoritxarrez ikasiko du kartzelan bezainbertzeko astirik ez duela izanen kartak idazteko, liburuak leitzeko, marrazkiak egiteko. Tarrapataka ibiltzea ohitura den bizitza honetan laketzen ikasi beharko du eta saiatuko da kartzelako bizitza lasai hura, denboraren zentzua galtzen zen bizitza hura, noizbehinka berreskuratzen. Kartzelatik, lagunez gain, horixe izanen baita nabarituko duen hutsik handiena.

Eta hilabete baten buruan eta urte baten buruan ohartuko da oraindik ere zenbait gauza deskasteko dituela. Zenbait kaiola-ohitura. Baina atera zen momentutik bazekien kartzelako ohiturak baino aise lehenago ikasiko zituela kanpoak. Guziz, arras libre ez bada ere, askatasunerat ohituratzea errazago baita.

PARROKIARENAK DIRA DENAK?

Ez naiz mezarat joatekoa, baina hango berriren bat ailegatzen zait noizbehinka, gehienbat niretako eskandaluzkoak direlarik. Nire satorrak badaki zer den interesatzen zaidana eta horixe kontatzen dit. Hontakoan Elizak ondasunak erregistratzeari buruzko gaia atera omen zuen apezak pulpiturat, duela aste bat, inork erantzuteko aukerarik gabe, apezek erabiltzen duten pulpitu horretarat.

Oroituko zarete gaia zein den, ez da hala? Elizak Nafarroan barna zenbait ondare bere ize-nean paratu zituen (bertze probintziren batean ere bai). Lege bati esker egiten ahal zuen eta egin zuen. Ondareak herriarenak dira, baina eskrituratu gabekoak. 2007an Tafallako zinegotzi bat jabetza batzuk erregistratzerat joan zelarik ohartu zen Nafarroako herri aunitzetako mila ondasun baino gehiago erregistratuak zituela artzapezpikutzak. Ondorioz, Nafarroako Ondarearen Babeserako plataforma sortu zuten. Prentsan

agertu ziren eta zalaparta pixka bat sortu. Hemen, eskualdean, bada zenbait kasu.

Orain arte, herriarenak kontsideratu izan dira herriak berak eraikitakoak izan diren maisu-maistren etxeak, apezetxeak, elizak, baselizak, herri lurrak... Eta inori ez zitzaion burutik pasatu horiek norbaiten izenean erregistratzea. Elizari gogoratu zitzaion. Elizak ondasunak bere izenean erregistratu eta gero, aukera du nahi duen guzia egiteko horiekin, saltzeko eta negozioa egiteko, adibidez.

Eta orain harrapazank!! Apezak argumentu berri bat erabili du. Azken finean justifikatu nahi du egindakoa. Parrokia hitza erabiltzen hasi da. Eta erran omen zuen ondare horiek ez direla ez Elizarenak, ezta herriarenak ere, parrokiarenak direla. Gauza beretsua leitu nuen Ttipi ttipako artikulu batean, aste berean, eta jakin dudanez bertze apezten batek ere atera omen zuen gaia bere sermoian. Aitzinekoari gehituz parrokiakoak direla fededunak diren herritarrek, eliza erabiltzen dutenak. Ez ditut satorrak eliza guzietan, baina hiru hauekin aski dut.

Susmoa dut azalpen hauek emateko kontsigna bera dutela gaineratik, agindu bera: Azaldu herritarrei PARROKIARENak direla elizak, beraienenak

ere badirela, berek parrokia direlako. Beraz, ondasun horiek trankil, zuenak dira, herritar fededunenak.

Eta hortxe nahasi zitzazkidan barnak. Parrokia hitzarekin. Ez naiz aditua, baina horra zer harrapatu dudana: Parrokia latinezko parochia hitzetik heldu da, eta hau grekoko paroikia hitzetik. Bi hauen erranahia eta parrokia hitzarena beraz, barrideak da. Hau da, leku berean bizi den jende taldea. Zer pasatu zen? Ba... kristautasunak bere indar guziarekin herritar guziak kristau egin zituela, barride guziak (nahi ez zuena errez) eta ondorioz, parrokia hitza beretako hartu zuen, erritualetako lekuak elizak eraikiz hartu zituen bezala, edo naturarekin lotutako egunak, sainduak paratuz hartu zituen bezala, bere eginez. Ondorioz, barride guziak kristauak dira, beraz parrokia kristau taldea da. Eta zentzu horrekin gelditu da. Elizak eta eraikin horiek parrokiarenak direla?, konforme, baina parrokia zentzu horretan, barrideak, eta ez barride fededunak bakarrik. Zorionez edo zoritxarrez, Udala da herritarren ondarea kudeatzen duen egitura. Beraz, Udalaren izenean beharko lukete, izatekotan.

Apezari eginen niokeen galdera da Parrokiaren izenean paratzen direla erraten dutelarik, norren izenean paratzen dituzte? Barride kristauen izenean? Posible da? Edo apezaren izenean? Bera

ordezkaria delakoz? Eta nork hautatu du? Ez barride ezta barride fededunen izenean. Apezpikutzaren izenean paratzen dute eta kitto!!

Ez eman buelta gehiago horri! Eta hor parrokiak ez du deus egitekorik.

ABORTUAREN LEGEA

Egun batzuetan erregresioa egiten ari naitzela iruditzen zait. Ez egiazko erregresioa, ez aitzineko bizitza bat bizitzen, baina bai aitzineko garaiak. Gibelerat egiten dut urteetan. Periodikoa hartu eta aldiero data begiratu behar izaten dut gauden urtean gaudela ziurtatzeko: irakasleak delinkuenteak dira eskuaraz eta eskual kultura erakusteagatik; edozein protesta kolpeka erantzuten dute; baimena eskatu behar da edozein ekitaldi egiteko... Dena da ilegal! Eta azkenena? Abortuaren legea!!!

Madrilgo Gobernuko PPK, hau da, zoritxarrez gure agintaria denak, sortu ez dena babesteko Legea onartu du. Bertze modu batez erranda: emakumeek beren amatasunaz erabakitzea ukatuko duen legea. Hau da, sortu ez denaren babesaren gainetik. Sortu ez denaren babesaren gainetik, bere bizitza erabaki nahi duenaren babesaren gainetik.

Historia pixka bat eginez, hiru lege nagusi desberdin izan ditugu Hego Euskal Herrian. Le-

henbizikoa Espainiako bigarren errepublikan. Hemen abortua legeztatu zen, baina, Errepublikak bezain gutti iraun zuen legeztatze honek. Ondotik 1985ean abortua zigortzen zuen legea agertu zen. Hiru kasutan abortatzen ahal zen bakarrik: bortxaketa baten ondorioa zelarik, edo amarendako arrisku fisiko edo emozionala zegoelarik lehenbiziko 12 asteetan; malformazioak zeudelarik 22 asteak artio, eta haurdun zegoen emakumearen osasuna arriskuan zelarik edozein momentutan.

2010ekoa etorri zen gero, orain artiokoa. Honek emakumezkoek beren sexualitatea eta amatasunaren inguruan behar dugun askatasuna aldarrikatzen zuen, eta hezkuntzari eta antisorkuntzari buruzko politika martxan paratu zuten. Ustez, praktikan ez baitzen halakorik eman, baina tira!! Pentsa! Nafarroan, adibidez, familia orientazioaren eta sexu-hezkuntzaren zentroak kendu zituzten. Ez bakarrik hori, 2012. urte artio Nafarroan ez zen abortatzeko aukerarik, ez publikoan, ezta pribatuan ere. Estatuko bakarra zen!

Eta orain? Ba orain gibelerat 2014ko lege berri honekin. Orain ia ezinezkoa izanen da abortatzea. Bi aukera daude bakarrik: haurdun dagoenaren osasuna arriskuan delarik edo bortxaketa bat izan bada. Malformazioak ez dira pisuzko

arrazoi izanen abortatzeko, ez bada emakumearen osasun arazoak sortzen dituela, eta edozein osasun arazo frogatu beharko da, ongi frogatu: alimaleko azterketa, galdetegi, mehatxu eta ez dakit zenbat froga pasatu ondotik. Hau da, zail-zaila.

Eta nondik aldaketa hau? Ideiarik ez. Dauden estatistikek ez dute hontarat bulkatzen. Abortatzen dutenen %98ak lehendabiziko 14 asteetan egiten dute. Abortuaren kopurua ez da jausten lege zorrotzekin. Ikerketek diotenez sexu hezkuntza politika egokiarekin arriskuko sexu praktikak jausten dira eta ondorioz abortuak.

Hiru mito faltsu erabiltzen dituzte argudiatzeko:

BAT: Emakumearen eskubideak zaintzen direla, baina ez fetoarenak. Gure gizarte ustez garatu hauetan, juridikoki eta filosofikoki (edo moralki) fetua ez da pertsonatzat hartzen, beraz, ez du eskubiderik. Eta guttiago pertsona den baten gaineretik.

BI: Abortua legeztatuz gero, abortu kopurua handituko da. Gezurra. Datuak begiratu. Horrek ez du bertzerik.

Eta HIRU: Ez baduzu umea izan nahi, ez abortatu, adopzioan eman. Hori da, berdin-berdin ikusten baitugu adopzioan ematen duena eta adopzioan hartzen duena. Hortaz, hipokrisia husta da emakumeari eskatzen zaiona, jakinda, ondotik, jendartearen babesa ez duela izanen.

Ba horixe, nire erregresioa hau osoa balitz... urrunxeago denboran... eta belagileen garaietatrat itzuliko bagina, aise hobe. Belarrekin emakumeak noiz eta nola erabakiz, abortatzen ahal zen garairat.

BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALA

Ez zaizue inoiz pasatu makuluekin ibilki zaretelarik, jende pila bat makuluekin ikusten duzuela? Edo haurdun egonda gauza bera, haurdun pila bat inguruan? Halako zerbait pasatu zait azkeneko astean. Oinarrizko errenta unibertsalarekin interesatzen hasi eta horra non eta prentsan: Europan herri galdeketaren eskaera, sinposiumak Gipuzkoan, mobilizazio ikusgarriak, sinadura bilketak...

Oinarrizko errenta unibertsala. Zer ote da? Hasteko zer ez den. Ezin da oinarrizko errentarekin nahasi, 400 eurokoa, arazo ekonomikoak dituztenendako. Laburtuz, denendako errenta bat da, soldata bat, lan egin edo ez. Holako proposamenek hautsak harrotzen dituzte. Jendearen lehendabiziko erreakzioa bi motatakoa izaten da, hezkuntza edo belaunaldiaren arabera: Ze txo-lloa! edo Bai, berriz ere alferrak alfer!! Erreakzio hori izan aitzinean, halako batean gaia eskuarte-

rat etorriko delakoz edo, han eta hemen leituz bildu ditudan oinarrizko lau ideia agertu nahiko nituzke hemen.

Definizioz: Oinarrizko errenta unibertsala, herritar guzietan baldintzarik gabe ordaintzen zaien errenta da, dituzten baliabideak eta lanean ari diren ala ez kontuan izan gabe. Eskubide bat izanen litzateke. Errenta apal bat, baina bizitzako oinarrizko beharrak asetzeko nahikoa izanen litzatekeena, zergen bidez finantzatua. Gauza guzietan bezala, aldekoak eta kontrakoak. Aldekoak:

Pobrezia desagertuko litzateke. Erostea ahalmen txiki dutenen egoera aunitz hobetuko zen eta aberastasuna hobe banatuko litzateke. Guttieneko ordain bat ziurtatua izatean, langileek askatasun handiagoa izanen lukete lan kontratuak negoziatzeko orduan; ez lukete edozein lan edozein soldataren truke egitea onartuko. Hainbertze handitu den prekarietatea desagertuko litzateke. Edo aunitz guttitu, bai bederen!

Bide beretik, gazteek eta emakumeek askatasun handiagoa izanen lukete eta, erraten dutenez, genero indarkeriaren kontrako borrokan pausu handia emanen litzateke. Bertzalde, gainerako gizarte laguntza gehienak desagertuko lirateke, eta hauetan iruzurrak harrapatzeko baliabideak ere

bai. Gainera lanaren ikuspuntu berri bat indartuko litzateke: borondatezko lana.

Kontra daudenen argumentuetan berriz, bi puntu nagusi:

Batetik, errenta horrek jendea alfertuko lukeela. Ondorioz, lanerako hautua egin dezaten, enpresaburuek soldata hobeak pagatu beharko litzukete, lanaren kostuak handituz eta produktuak garestituz. Inflazioak errenta horren eragingarritasuna murriztuko luke. Eta bertzetik, immigrazioa aunitz handituko litzateke, oinarrizko errenta unibertsalik ez duten herrialdeetako jendeak errenta hori duten herrialdeetarat.

Zailtasunak zailtasun, bada hala funtzionatzen duen herrialderik. Alaska, adibidez. Gaur egun gizarte laguntzetarat bideratzen diren baliabideak bertze modu batera antolatzean eta zerga sistema erreformatzean oinarritzen da. Hego Euskal Herrian bideragarria omen da. Datu bat, bertzerik ez.

Zaila? Duela 200 urte pentsaezina zen sufragio unibertsala, denok bozkatzeko aukera izatea. Duela 100 urte pentsaezina zen osasuna edo hezkuntza eskubide unibertsala izatea. Zergatik ez oinarrizko errenta unibertsala?

Ba horixe, batek zioen bezala beharbada ez da erabakitzeko momentua, baina bai eztabaidatzen, hausnartzen hasteko. Eta horixe da nik nire buruarekin egin dudana eta zuekin konpartitu nahi izan dudana.

MUGAK

Denen ahotan izan zen 2014ko neguan itsasoaren indarra, itsasoak hautsitakoa: han eta hemen zenbat kalte egin duen itsasoak; zein olatu ederrak, baina zein suntsitzaileak. Itsasoak berak eman dit gaia: mugak nola gainditzen ditugun edo nola bilatzen ditugun.

Egun horietan ondarrutar hura itsasoak nola eraman zuen aditzean horixe etorri zitzaidan bururat. Irudi gogorak segur aski, ez ditut ikusi nahi izan. Baina galdera sortu dit: Zergatik saiatzen gara mugak gainditzen, muga bat badela ikustean, gure kalterako izaten ahal dela jakinda ere? Edo hobe erranda, muga gainditu baino, muga hori bilatzen saiatzen gara, muga non den jakin nahian, ondo-ondoraino hurbilduz. Zergatik? Hau da, badakigu kaltea, arriskuren bat badela, baina hala ere segi, mugaraino. Honaino ailegatzen ahal naiz.... Edo igual gehixeago. Bada hor zerbait.

Ondarrutar hark halaxe egin omen zuen, ez pasatzeko kartela ikusi, baina hala ere, pasatu,

arriskua ez zela hainbertzekoa pentsatuz, segur aski. Kasu hortan ez dakit eginen ote nuken, itsasoak beldurra ematen dit, baina maiz egin izan dut halako zerbait. Muga non, ni hurbil.

Zenbait galdera zuendako, nik ez baitut erantzunik:

Zergatik gidatzen dugu mugatik goiti? Zergatik joaten gara 140an 120 paratzen duen tokian? Edo 50 paratzen duen tokian 80an? Edo zergatik aparkatzen dugu doblefilan? Edo zebra-bideetan? Norbaiti traba egiteko aukera den horietan guzietan norbait gurekin haserretzeko mugaren bila? (ez naiz multaz ari)... Zergatik uzten dugu holakoetan autoa?

Zergatik erretzen dugu? Edo kalte egiten diguna jan? Edo mugarik gabe edan? Ez dut hauen kontra deus erranen, ez naiz moralkeriatan hasiko. Ez dut erretzen ikasi eta orain edan ere ez, ez dut alkoholik edaten. Baina egin izan dut, gozatu izan dut mugaren hurbil hortan. Zergatik? Ondorioek, bestondoek, erakusten digute, baina hala ere, mugaren bila. Honeraino aguantzaren ahal dut bestondoa...

Edo mendietan, zer erranik ez!! Zergatik arriskatu mugaraino mendian? Eguraldia, pisua, bideak.... muga-mugan.

Ligatzen ere... zergatik ezetza hartu eta hala ere segi, pelmada ematen? Ea bertze norbaitek jazarpena eta ligatzearen arteko bereizketa belar-rondoko batekin zein den erraten digun? Edo zergatik arriskuko harreman sexualak? Kapotarik gabekoak, babesik gabekoak, adibidez?

Zientoka galdera buruan, ikusten duzuen bezala. Zerrenda luzea. Lagun batek pista bat eman zidan erretzeko eremuak zehazten duen arau-lege berria egin zutelarik, erran nahi baita, zenbait lekutan erretzea debekatu zutelarik: erretzeari aspaldi utzia zion lagun horrek, baina debekatua zela ikustean, gogoia sortu omen zitzaion, debekatutako zerbait egiteak ematen duen plazer hutsagatik.

Horixe izanen da erantzuna? Mugak baino, debekuak ematen duen plazera?

BANDERAK

Oroitzen naiz eskuararen normalizaziorako mintegi batean izan nintzela, aspaldi, eta egin genituen ariketen artean bat periodikoak aztertzea zen. Egunkari elebidunak hartu eta eskuararen erabilera aztertu genuen: Zenbat eskuara erabiltzen zen, orrialdearen zein tokitan agertzen zen, notiziak argazkirik ote zuen edo ez, portadaren hizkuntza.... Hizkuntzak garrantzirik ote zuen edo ez egunkari hortan.

Emakumearen presentzia aztertzeko ere, halako zerbait egin izan dut. Edo etorkinen tratua. Badakizue! gaizkilea gaizkilea da bertzerik gabe, baina etorkina baldin bada, bere jatorria erraten dute. Zeharkako zapalketak aztertzea interesantea izaten da.

Eta ohartu naiz badela bertze aukera bat: Buelta eman eta zapaldua aztertu beharrean zapalzailea periodikoetan nola agertzen den ikustea. Kurioso da.

Azken egun hauetan gehien agertu den zapaltzailea UPN izan da prentsan. Sentitzen dut UPNko bozkatzailea bazara, baina halaxe da. Bat bertze baten gibeletik. Batetik, debekua eta inposizioa izan dugu Baztanen: Ikurrina debekatu dute eta Espainiako bandera inposatu. Eta bertzetik, gobernuaren ustelkeria berriz agerian. Biak UPNren gauzak. Azkeneko horrek hartu du Nafarroako periodikoetan puska potolo bat aste hontan.

Eta nola agertzen dira periodiko desberdinetan bi afera hauek? Titularrak aski, ohartzeko; periodiko pare bat aski, konparatzeko. Eta portadak aski, erraten dutenaren inportantzia ikusteko.

Banderekin hasteko. ABCk bandera nazionala deitzen dio, bandera espainiarrari. Dudarik ez!! Leku guzietan bandera espainola deitzen delarik, berak nazioa zein den ongi azpimarratu nahi du, balekabale. Bertze titular bat: Bilduk Espainiako bandera jarri du ezdakitnongo balkoian. Horixe, argi gelditu dadila Bilduk paratu duela. Gaizki egitekotan Bilduk egin duela. Horra!

Eta UPNren ustelkeriaren azken afera horrekin? Gobernua itzulipurdika ibiltze hori nola agertzen da? Gobernuak sosa nahi bezala mane-jatzen duela adierazten du Ogasun kontseilari

ohiak eta horra periodikoek diotena. Espainiako eskuindar periodikoetan Barcina biktima gisa agertzen dute: Bota nahi naute, portada batean Barcinaren hitzak. Bertze titular bat: ETAREN aldeko taldeek antolatu zuten Barcinaren kontrako protesta, Berriz ere ETA!! Bertze bat: PSN Bildurekin elkartuko da Barcina gobernutik botatzeko. Bildu deabrua da ikusten duzuen bezala!!

Ba bai, biktima gisa ikusten dute Barcina Espainiako periodikoetan. Eta Nafarroan? Nola ikusten dugu Nafarroan? Nafarroan uste dut argiago dugula biktimak gu garela eta bera zapaltzailea. Protestekin hala ulertzen dut.

GURE TRADIZIOAK

Inauterietako asteartea. Batzuendako inauteriak pasatuak, bertze batzuendako inauteriak bestondoa dira eta bertze batzuk azken besta, bestondoa biharamuneko utzita.

Inauteak besta ederrenak iruditu izan zaizkit beti: eskean ibiltzea, etxez etxe, kantuz eta dantzatan. Herritarrak, herritarrendako eta herritarren artean. Niretako ederrenak, baina egia da bertze besta bat dela, urtean barna gauzak ospatzeko dugun bertze besta bat, bertzerik ez.

Besta hau zehazki negua agurtzeko eta udaberriari ongi etorria emateko da, izurriteak uxatzeko omen. Gaur egun, zenbaitzuendako, urtean barna erreprimutakoak azaleratzeko eta nola ez, herriaren elkartzeko edo bat-sentitze, bat-egitea gauzatzeko, indartzeko. Hala iruditu izan zait beti, hala sentitzen dut: denak elkarrekin bestan. Ederra da. Etxeetako ateak irekiak egoteak dena erraten du. Eta gustatzen zait, aunitz.

Dударик gabe, ez da beti horrela izan. Oroitzen naiz oraindik haurra nintzela, hasi berriak zirela neskak etxez etxe eskean. Lehen, bertze zientoka ohitura zaharretan bezala, mutilak ibiltzen ziren bakarrik.

Hasi ziren neska haietaz oroitzen naiz, berriek ere parte hartu nahi zutela erranez. Eta parte hartuz. Baten batek zerbait erranen zuen, seguru, baina hasi ziren eta konforme. Nire txanda ailegatu zelarik bidea egina nuen. Ederki. Eta beharrik!

Baina, oroitzen naiz bertze ohitura zahar batean ezin izan nuela parte hartu. Neska izateagatik. Sekulan ez nuen orakundeko makila hartu eta oilarraren bila abiatu begiak tapatuak. Mutikoen gauzak ziren eta ni neskatikoa nintzen. Ni ikusle. Gaur herriko neska guziek parte hartzen dute, normaltasunez. Ez zen bertze modu batez izaten ahalko. Arraroa irudituko litzaieke haurrei... eta hauen gurasoei.

Horra bi muturreko adibide. Batean arazorik gabe parte hartu nuen eta bertzean berriz, ezta burutik pasatu ere!! Baina bueno! Biak ongi bideratu dira.

Baina, dena ez da aldatu, eta zein tokatu zait niri? Ba bai, mutil dantzena. Gizartea aldatzen ari da, bistan da, zorionez, eta bertze gauza aunitz gizon-emaztekiak konpartitzen ari garen bezala (Inauteri, Orakunde, zikirojate, kinto besta ...) mutil dantzetan arazoak sortzen dira.

Norbaitek esplikatuko dit, arrazionalki, zergatik? Zergatik bertze ohitura horiek konpartitzeko prest daudenek, ez duten gurekin mutil dantza konpartitu nahi? Norbaitek esplikatuko dit zer den aldatzen dena dantzaria emakumezkoa delarik? Zer aldatzen da nik dantzatzen dudalarik?

Niretako deus ere. Zuendako?

JEKYLL DOKTOREA ETA MR HYDE

Zer leitu ez dakidalarik edo eskuartean ditudan liburuek motibatzen ez nautelarik, bi aukera izaten ditut: edo nobela beltza edo klasikoa. Nobela beltza misterioak engantxatzen nauelako. Aunitz. Eta klasikoak berriz, aspaldi idatzitakoak oraindik ere zer erranik baldin badu, egunerokotasuna galdu ez duela pentsatzen dudalako.

Ez hain aspaldi klasiko bat leitu nuen. Stevenson eskoziar idazleak idatzi zuen Jekyll dokto-
rearen eta Hyde jaunaren kasu bitxia. Duela 100 urte baino gehiago idatzia, eta geroztik zientoka aldiz argitaratua. Istorio hortan abokatu batek bere lagun mina den Henry Jekyll doktoarearen eta Edward Hyde antisozialaren arteko erlazio bitxia ikertzen du. Lehenbizikoaren jarrera normala da, nolabait errateko, egokia. Eta bertzearena berriz horixe, jarrera desegokia, txarra: jendea gorroto du, jotzen du, erasotzen du... Eta abokatuak deskubritzen du, halako batean, bi per-

tsonaia hauek pertsona bera direla. Hau da, Jekyll doktorea Hyde bihurtzen dela, aldika.

Eta leitu ondotik, ohartu naiz nobela honek denboran hainbertze iraun izanaren arrazoiak, gaurkotasuna galdu ez izanaren arrazoiak. Hamatika adibide aipatzen ahal dira, gure jendarte hontan dauden dr Jekyll guzienak. Baten bat kontatuko dizuet.

Adibidez: Baltasar Garzon epailea. Garzonek Estatu Espainiarrean torturak babestu ditu, torturak bulkatu ditu, edo ezikusia egin du torturen aitzinean. Hor Mr Hyde misantropoa. Eta Argentinan berriz, Pinotxeten diktaduraren kontra aritu zen, eta han eman ziren torturak salatu zituen. Hor Dr Jekyll, bere jarrera eredugarriarekin.

Bertze bat Frantzisko, aita saindu delakoa. Bat-batean arras aurrerakoi, ezkertiar, aldaketaren aldekoa da, kristauen nagusien nagusia. Jakinen zenuten, ez da hala? Bere bi deklarazio leitu nirtuen, bata bertzearen ondoan eta Dr Jekyll eta Mr Hyde etorri zitzaizkidan bururat. Bere Dr Jekyll-ek erran zuen: Benetan erraten dizuet sufritzen dudala eliza edo elizaren barneko erakundeetan emakumearen rola soilik mirabe izatea dela ikusten dudan bakoitzean. Ongi, badu kezka. Baina, bere

Mr Hydek erran zuen: Emakumeak apez izateari buruz eliza katolikoak argi erran du: EZ. Bera da nagusia, beraz, EZ horrek segituko du.

Goazen politikoetara. Hor pilaka ditugu. Estatu Batuetako Barack Obama lehendakaria. Kargua hartu zuen urtean, Bake Nobel saria hartu zuen. Herrien arteko lankidetzak bulkatzeagatik eta ezdakitzer gehiagorengatik. Jarrera egokia du gizonak, Dr Jekyll da. Eta biztartean, bere Mr Hyde hor mundu erdia bonbardatzen, mundu erdia inbaditzen eta gerrak nonahi pizten.

Politikariekin hasten bagara egia erran, ez dugu sekulan akituko. Adibide gisa herrialde nordikoetan hortxe ditugu politika eredugarriak, ongizate maila handiko herrialdeak, herritarren oinarrizko beharrak ongi aseak... jende zoriontsua. Baina noren kontura? Afrikan dabil Mr Hyde nordikoa afrikarrak zapaltzen, herrialdeak kolonizatzen eta xehatu artio ustiatzen.

Hauekin uste dut aski adibide direla, ez? Ulertzen da afera... Denek dugu Mr Hyde bat barnean, dudarik ez. Afera da neurri desberdinekoa dugula, eta zapalketa beraz, neurri desberdinekoa dela.

EZ DUT KIROLIK EGITEN

Aldiakirolaegiteatokatuzan zait...Gezurra. Egia erran behar dizuet: ez naiz kirolzalea. Ez normalki ikusten dudan kirolzaletasunaren mailakoa bederen. Gainerakoen ondoan, alferra izanen nintzateke. Ez naiz konstantea eta beraz, ez naiz kiroleterat lotzen. Ez bertze aunitz lotzen diren bezala. Egia da oharkabean egiten ditudala nire muskuluen lanketak gustukoak ditudan gauzekin. Ez dizkizuet denak konstatuko, baina izan daiteke baratzea, paseoak, haurrekin jostetan, lasterka... Nire egiazko kirola, edo kirolarekin dudan harreman zuzenena, gaur egun, ikusle izaterat mugatzen da. Eta hori ere motz.

Aste hondar berean herri kirolak eta futbola ikustea tokatu zitzaidan behin. Futbolak ez nau zerbait idazteko motibatzen. Egia erran kirol konpetizio hau bururat etortzen zaidan guzietan kritikak eta haserreak etortzen zaizkit: konpetizioaren maila gorena, gorrotoa, irainak, maila handienetan zentzugabeko sosaldiak... Hontakoan ez naiz ur horietan sartuko.

Herri kirolak ikusten gozatu nuen. Eta ez da nire afizioetako bat. Ikusi nituenaren alde onak kontatu nahi dizkizuet. Badakizue, bakoitzak bere radarrak ditu egunerokoan eta nireak hizkuntza eta emakumeen presentzia dira azken hontan piztuenak. Baditut gehiago, baina indar guttixagoarekin, noizbehinka gorri-gorri paratzen direnak.

Ohartu naiz herri kirolean neskatikoen presentzia normala dela, kopuru ederra bazen. Normaltasunez ikusi nituen. Beraiek, kideak eta publikoa ere bai, eta edozein froga mota egiten zutela: txingak, laster, zakuak...

Hizkuntzaren aldetik, dena eskuaraz: aurkezlea eskualduna, entrenatzaileak ere bai, inguruan nuen publikoa ere bai. Ez nuen sinesten ahal!! Bazen urruntxeago erdaraz ari zena, baina urrun ziren eta ez nituen kontuan hartu nahi.

Konpetizioa bazen, dudarik ez, ez da kirolik konpetiziorik gabe, zoritxarrez. Konpetizioa maite dut (kartak, partxisa, pinpona....) ez dut ukatuko. Ez dut ukatuko, parte hartze hutsarengatik hasten banaiz ere, irabazteko aritzen naitzela, behin hasita. Afera da galtzean ez sufritzen ikastea, deus gehiago. Berdin gozatzea.

Eta horixe da ikusi dudan hirugarren gauza: ez zen haserrerik, ez zen giro txarrik, ez zen negarrik, ez zen arbitroaren kulparik. Gozatu nuen. Haurrak zirelako izanen zen? Helduek desberdin jokatuko dute? Ez dakit, horixe zen ikusi nuena.

Zerbait aldatzekotan, Errugbiak duen hirugarren denbora falta zitzaion, bertzerik ez!

INDARKERIA

Emakumeak, indarkeria... holako hitzak aditzen ditugularik Nagore Laffage bezalako kasuak gogoratzen ditugu. Hala da, horixe da emakumeen kontrako indarkeria, biolentzia, baina hau izebergaren punta bertzerik ez da.

Hau muturreko egoera da, ez da zalantzarik. Baina sotila den indarkeria ere hor da. Ikusten ez duguna, identifikatzeko zaila egiten zaiguna. Edo indarkeria gisa izendatu nahi ez duguna. Edo ez dugu indarkeria gisa ikusten: indarkeria ekonomikoa, psikologikoa, sexuala, morala...

Joan den egunean adibidez, prentsan leitu nuen laurden bat ttikiagoak direla oraindik ere emakumeen soldatak gizonezkoenekin konparatuz. Hori indarkeria ekonomikoa da. Irainak, guttiespenak, kontrola, hau psikologikoa. Denak menpekotasunean oinarrituak. Denak indarkeria.

Indarkeria estrukturala da, gizartearen egituraren parte, gizartearen parte, hortaz ez dugu ikusten. Ongi barneratuak eta onartuak ditugu.

Hala da, ez da emakumea izateagatik. Holakoak aditu izan ditut norbait lan batean hartzen ez badute, guttiago kobratzen badu, senarrak ostiatzen badu. Ez da emakumea delakoz, harremana holakoa dutelakoz baizik.

Sentitzen dut, baina ez da hola. Maiz tuinguru, jende eta bizimodu zehatz batzuekin erlazionatzen ditugu indarkeria kasu hauek eta soluzioa ere bakarkakoa dela sinesten dugu. Oroitzen naiz langabezia gelditu ziren politikarien bizkartzainak emakumeen bizkartzainak bihurtzeko proposamen bat izan zela. Niretako hau ere nahiko biolentoa. Ez dakit martxan paratu ote zen, baina hori petatzu bat da. Bi egunetan deseginen den petatzua. Holako petatzuak maiz.

Ez da egoera isolatu batzuen afera. Antolakuntzarena da, gizartearen estrukturarena. Indarkeriak gizon eta emakumeen arteko harremanak eraikitzeke moduan du jatorria. Gure gizarte hau desberdintasunean oinarritua da: langileak/nagusiak; aberatsak/pobreak; gazteak/helduak; xuriak/bertze arraza batekoak; emakumeak/gizonak. Bereizketa horrek mantentzen du gizarte mota hau. Menpekotasunak. Hori ikusten ez badugu, nekez akituko dugu indarkeriarekin.

Ttikitatik barneratzen ditugun rolak mantentzen ditugu inguru guzian barneratuak daudelako: eskola, familia, lagunak, inguru hurbila, hedabideak... Hortaz osotasunean eragin behar dugu eta ez neurri isolatuak hartu. Goazen bakoitzaren gurean eragiterat.

Nik ama gisa nire semearen eraginean dut; lagun gisa nire koadrilan eta bikotean; alabarreba-ahizpa gisa nire familian; militante gisa nire taldeetan; guraso gisa eskolan. Eta liburuxka honekin zuengan.

PUBLIZITATEA

Pazko egunak ailegatzen direlarik, bazter guzietan oporretarat norat joan erabakitzeko aukerak ikusten ditugu. Publizitatea. Eta bertze sasoi batean bertze zerbait, baina publizitatea denean barna dugu, egunero. Mundu hori harrigarria da, egiazki. Ez gara ohartzen zer den!

Publizitatea egia erran, komunikatzeko modu bat bertzerik ez da, baina ematen den berria edo komunikatu nahi dena, saldu nahi dituzten zerbait da beti. Eta ez bakarrik produktu bat, bizimodu ere du bat saltzen digute eta guk sinetsi eta erosten dugu. Irensten dugu. Publizitatea kontsumismoaren propaganda da, azken finean.

Urtean astakeria gastatzen da publizitatean, milioika euro! publizitate egoki eta eraginkorrak pentsatzen milaka jende dabil. Lanpostuak dira, lanpostu onak. Beraz, argi da enpresei onuragarria zaiela. Lanpostu horietan, zoritxarrez, jende sortzailea dago. Pena!! Arras jende interesgarria izan daitekeena, beren neuronak jendea engainatzeko erabiltzen dute.

Gutako aunitzek uste dugu gu ez gaituztela engainatzen, immuneak garela, badugula iritzia, irizpidea, analizatzen dakigula, badakigula publizitateari kasurik ez egiten... baina zenbait ikerketen arabera, zinema eta telebistak gure inkontzientean alimaleko lana egiten dute. Badakizue, aktore polit horrek, beti du koka-kola botila bat eskuan. Eta gauza sotilago batzuk agertzen dira, eta horrek eragiten digu. Begiratu zuen etxeetan eta zerrendatu urte bete erabili gabe dituzuen arropa horiek, traste horiek, liburu horiek..... Harrituko zarete. Eta? Beharrezkoak ditugu? Nork sinetsarazi digu baietz?

Gure ingurua kaltetzeaz gain, gure burua kaltetzen dugu, azken finean agintariek (eta ez naiz politikariez ari bakarrik) masarekin komunikatzeko duten modua da publizitatea: Lasai bizi nahi duzu? Erosi hau. Kontent bizi nahi duzu? Segi hau ezagutzerat. Ekologikoa izan nahi duzu? Erosi bertze hau. Eta hola gure bizimodua nolakoa izan behar den erraten digute, esperantza faltsuak sortzen dizkigute, gehiena gu engainatzeko egiten dute, gezurrak erraten dituzte.

Ez naiz asmatzen ari. Hala antolatua da publizitatea. Horixe da bere helburua. Eta bai, publizitatearen kontra nago. Aldatu behar da! Sortzaileak izan behar dugu, baina gure alderat. Ba-

ditugu adibide batzuk: gorputzean idatziz, kami-setak egin, banderak balkoietan...

Joan den astean ikusitako anuntzio batek sortu dizkit kezka hauek. Euskal Herrian oportetako planak eskaintzen zituen aldizkari bat ikusi nuen. Badakizue: Mendia, natura, paseoak, landa-etxeak, kanpinak... Arras naturako, arras naturala eta naturarekin. Azkeneko orrialdean berriz, orri osoa hartzen zuen publizitatea: Abiadura Handiko Trena!!! Ez nuen sinesten ahal.

Aldizkaria bota, etxetik atera eta bidean karakol arroxak ikusi nituen seinaleetan, AHTren kontra. Kontra PUBLIZITATEA martxan zen!!! Sortzaileak gure alde sortzen! Eta ni kontent!!

DEMOKRAZIA MONARKIKOA!??

Nahiago nuen berataz ez solastatu. Nahiago nuen bera ez aipatu. Ez aipatzean desagertuko dela uste dudalako. Ez aipatzean inportantziarik ez duela agerian uzten delako. Isolatu nahi nuelako, bertzerik gabe. Baina zaila egin zitzaidan, iritzi artikuluen tituluetan monarkia hitza bertzerik ez nuelako ikusi. Han eta hemen jendearen eskandalua nabaritu nuelako. Monarkia eta abdikazioa izan ziren gehien ikusi eta aditu gutuen hitzak. Ez dakit ongi zergatik halako eskandalua. Bagenekien gertatuko zela, ez?

Ez nuen interesik izan eta ez nituen leitu, baina bat kolatu zitzaidan eta Idurre Eskisabelek idatzitakoa leitu nuen. Maitatu nuen. Motzean, baina argi erraten zuen demokrazia-ezaren zaintzailea dela Espainiako monarkia. Egunkariaren kasua aipatzen zuen adibide gisa. Bertze zientoka izanen zituen segur aski, eta egunez egun demokrazia faltaren adibideak gehitu eta gehitu egiten dira gure herri honetan.

Ez dugu urrun joan beharrik. Baztanen etxeko atean eta aste betez, bi izan genituen:

Ortziralez jakin nuen Baztango bortz lagunek 600 eta 1.200 arteko isunak hartu zituztela, 4.800 euro denetara. Zergatik? Ilunabar batean, bezperan gertatutako Herrira elkartearen kontrako operazioari buruz solasean aritu zirelako. Plaza publiko batean herritar talde bat. 4.800 euro pagatu behar ote da leku publiko batean solasean aritzeagatik?

Asteazkenez berriz, jakin nuen Aritxulegin zegoen baso bat desegin zuela guardia zibilak. Euskal militanteen lagunek eta familiakoek landatutako arbolak kendu zituzten. Arbolak kendu!! Arbola horien funtzio bakarra sinbolikoa eta sentimentala da, arbola bat landatu duelako familia bakoitzak bere ahizpa, semea, ama, anaia, alaba, izeba edo laguna hil zelako eta bera gogortzeko. Horri terrorismoa goraipatzea deitu zioten eta 5 lagun atxilotu.

Halaxe da demokrazia hau: elkartzeko tartarik ez, oroitzapenerako tartarik ez.

Horri kontra egin genion ondoko asteburu osoan. Batetik, solastatzeko elkartu ginen, eta bertzetik, memoria egin genuen. Aritxulegin bere

arbola zuen Txokotoko Kepak. Orain jakitera non den arbola hori! Baina lagun eta senide koa-drila batek sekulan errotik kenduko ez duten oroitzapena landatu zuten, ortziralean erakusketa irekiz eta liburua aurkeztuz. Larunbatean jostetan eta mahai bueltan.

REVOLUÇÃO DOS CRAVOS

Portugalen iraultza egin zela 40 urte bete ziren 2014ko apirilean. Tirorik bota gabe militarrek estatu kolpea egin zuten Lisboan. Ezagutu beharreko bitxikeria iruditu zait beti: militarrek estatu kolpea faxismoa botatzeko eta tirorik ez (?). Krabelin gorri bat kanoi batean sartua da irudi ezagunena. Krabelinen iraultza.

Apirilaren 25 guzietan mezu bat igortzen diet hango lagunei, iraultzagatik zoriontzeko, herriak diktadura bota zuelako, diedan miresmena adierazteko eta azken urte hauetan animoak emateko. Beharko!

Lagun baten aurtengo erantzuna bikoitza izan da. Batetik, muxuak eta krabelinak igorri zizkidan desiatuz mila apirila loratu daitezela Euskal Herrian eta Portugalen ere, berriz. Bertzetik, haserrea adierazi zidan, delako Troika beren herrialdea xehatzen ari baita. Egoerak gibelerat egiten duelarik zaila dela ospakizunetan aritzea. Duela 40 urteko iraultzan lortutako guzia galtzen ari dela pixkanaka. Gainera lehen, diktado-

reak identifikatzen ahal zirela, izen bat zutela: Salazar, Franco, Mussolini... eta orain erakunde izena dutela: Nazioarteko Diru Funtza (FMI), Europako Banku Zentrala, eta Europako Batzordea. Horixe da hirukoa, troika.

Beltzeko gizakiak. Uniformea bai, baina aurpegirik ez dutenak. Edo milaka aurpegi, bo-rreroek bezala. Horiek direla diktadura garaian eta iraultza egin baino lehen, Portugalen zegoen egoera berbera gaur egunera ekartzen ari direnak. Duela 40 urte bezala, gaur egun zerbitzu sozialak desagertzen ari direla; eskubide sozialak murrizten; oinarrizko lansaria ttipitzen eta ttipitzen; kaleratze ilegalak gauzatzen; oinarrizko sektoreak privatizatzen; soldatak murrizten eta jubilazioak ukatzen. Eta abar, eta abar, eta abar. Garai batean giza esklabutzarekin aberastutakoen ondorengoak agintean daudela berriz, pertsonen bizkar aberasten beti.

Duela hiru urte izan nintzen azkeneko aldiz han. Hemen ezkongaien despedidak egiten diren bezala han migrazio despedidak egiten ziren. Eta segitzen dute. Gogorra da lagunak munduan barna barraiatzerat behartuak direla ikustea.

Gibelerat nostalgiarik gabe begiratzearen aldekoa naiz, ikasteko, behin lortu zela jakiteko

eta bigarrenez lortzeko aukera badela sinesteko. Nahiz eta hontakoan diktadorea, (giza trafikantea) zorrotzagoa, zailduagoa eta handiagoa den. Eta makurrena: eskua Europako herrialde guzietan du. Hedatua dago herlaino hetsia bezala.

Aukera bakarra uzten digu: ostarteak (plazak, lantegiak, eskolak, etxeak....) zabaldu behar ditugu apiril guziak krabelinez betetzeko.

ARIGATOU GOZAIMASHITA KOBAYASHI

Altxor bat ailegatu zitzaidan behin korreoz. Takiji Kobayashi idazlearen testu bat zen, 1928ko martxoaren 15a izena zuena. Ez nuen idazlea ezagutzen, ez nuen nobela ezagutzen. Ez nuen fitxik ezagutzen. Testu hau japonieratik euskararat itzuli dute eta sarean paratu. Ez duzu aise harra-patuko, ez ingelesez, ez espainolez, ezta frantsesez ere. Eskuaraz eta sarean. Hori bitxikeria bat bertzerik ez da. Eskuararat itzultze horrek kuriositatea piztu zidan eta tartetto baten aukera eman nion jakin-nahiari, ea zer ikusten nuen.

Komunista zen Kobayashi. Japoniako literatura proletarioa deitzen duteneko idazle garrantzitsuena. Japoniako komunismoa eta langile klaseari buruz idazten zuen. 1928ko martxoaren 15a liburu hontan bereziki Japoniako historiako gertakari gogor bat kontatzen du. Salatzen du. Egun hortan hasi eta zenbait hilabetez milaka lagun atxilotu zituzten, torturatu eta, epaiketa luze baten ondotik, zigor gogorak eman. Nahiko datu,

nire interesa pizteko. Kuriositatea handitu, eta gehiago arakatu nuen.

Publikatu zuen bertze nobela batek oihartzun handia izan zuen Japonian: Kanikosen. Japonieraz karramarro arrantzalea erran nahi du. Nobelako karramarro arrantzaleek egoera latzetan lan egiten dutela salatzen du hontan: Kamchatkako itsaso arriskutsu eta hotzean, nagusi bortitz eta bihozgabe batekin. Nekazariak, hetsitako fabriketako langileak, bertze baliabiderik ez dutenak... Horiek dira arrantzarat abiatzen direnak. Horiek dira bertze aukerarik izan ez dutenak eta liburuan salatzen duen bezala karramarroak biltzen dituztenak, biltzeaz sekulan arduratuko ez direnek jateko. Baina, elkartasuna eta bat-egitearen garrantziaz ohartu eta matxinatu egiten dira.

Hau bezalako nobelak kontatzeagatik, publikatzeagatik, Kobayashi detenitu eta torturatu zuten. Eta torturen ondorioz hil, 29 urte zituela.

2008an nobela berrargitaratu zuten, komiki bat egin zuten, filma... eta klasikoa bihurtu da, 1929an kontatzen denak gaur egun lekua duela-koz. Nobela honek halako eragina izan zuen, kanikosen fenomenoaren espresioa sortu zela. Gaur egungo langile gazteak nobelaren pertsonaiekin identifikatzen direla-koz: lan kontratu duinik ez,

soldata duinik ez, prekarietatea, nagusien handikeria... Arrantzaleak bezala, ohartzen dira beren lanik gabe itsasontziak, lantegiak, ez duela zentzurik.

Altxorrak konpartitzeko dira eta hala egin nahi izan dut. Egoera horiek gainditzeko ezagutza eta kontzientzia delakoz lehendabiziko pausua.

AURKIBIDEA

AITZIN SOLASA	9
DENBORA GALTZEA	12
BIDAIA	15
OLENTZERO	19
MANIPULAZIOA	22
ERRETRETA	24
ESKUALDUN BURUGABE?.....	27
ETXEEN IZENAK	30
MARTXOAREN 8a	32
HISTORIA ISTORIOAK	34
IRAUNGITZEA	36
KORRIKA 17	39
ESKOLA PUBLIKOA	41
ISOLAMENDUA	44
NEGELA.....	47
PASTORALA	50
MURRIZKETAK ESKOLETAN	53
BISITA	56
ESTATISTIKAK	59
SARIAK SARRI	61
OPORRALDIA	64
TTUKU-TTUKU.....	66
KOLOSALA	69
TXILLARDEGI	72
ZIKLIKO.....	75
EUSKARAZ KONPLEXURIK GABE	78
TELP.....	81
PILOTA HILTZAILEAK	85
AUNITZ URTEZ KRUTWIG	88
HIGIENISMOA	90

PUERTO	93
HAUTESKUNDEAK	96
KURDUAK.....	98
TEKNOLOGIA BERRIAK	101
INAUTERIAK	104
HAZIEN EGUNA	106
ESKAPATZEKO GOGOEKIN	109
EGUTEGIA	112
ZIENTZIA FIKZIOA	115
SUTAN PARATZEN NAU	118
PALESTINA	121
DEPORTAZIOA	125
BESTAZ BESTA	128
MERENGE TARTA	132
LOMCE	135
ORDU ALDAKETA	138
BERRIZ LIBRE	141
PARROKIARENAK DIRA DENAK?	144
ABORTUAREN LEGEA	148
BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALA	152
MUGAK	156
BANDERAK	159
GURE TRADIZIOAK	162
JEKYLL DOKTOREA ETA MR HYDE	165
EZ DUT KIROLIK EGITEN	168
INDARKERIA	171
PUBLIZITATEA	174
DEMOKRAZIA MONARKIKOA!??	177
REVOLUÇÃO DOS CRAVOS.....	180
ARIGATOU GOZAIMASHITA KOBAYASHI.....	183

